

SANSOMENDI

**Gasteizko Udal
Haurreskolaren
Hezkuntza
Proiektuaren
Laburpena
2020**

1.- SARRERA	4
2.- PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK	5
2.1. Nola ulertzen dugu haurra?.....	5
2.2. Aniztasunarekikoarreta.....	6
2.3. Pertsonahelduaren zeregina.....	6
2.4. Harremana eta parte-hartzeafamiliekin.....	6
2.5. Hizkuntzen tratamendua.....	7
2.6. Baterako hezkuntza eta gizonen erantzunkidetasuna hezkuntzan.....	7
2.7. Ingurumen-iraunkortasuna.....	9
3.- ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA	10
3.1. Antolamendua.....	10
3.2. Funtzionamendua.....	11
4.- ESPAZIO ETA MATERIALAK	15
4.1. Espazioak.....	15
4.2. Materialak.....	16
5.- JOLASERAKO AUKERAK	18
6.- HEZKUNTZA PRAKTIKA	20
6.1. Harreragaraia.....	20
6.2. Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak.....	24
6.2.1. Zainketa Marko Orokorra.....	24
6.2.2. Harrera- Agurra.....	25
6.2.3. Elikadura.....	28
6.2.3.1. Bazkaria	28
6.2.3.2. Hamaietakoa.....	31

6.2.4. Higienea.....	33
6.2.5. Atsedena eta loa.....	38
7.- BESTELAKO EKINTZAK.....	41
8.-EBALUAZIOA.....	45
9.- HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUSPENA.....	51
10.- BIBLIOGRAFIA.....	52

1. SARRERA

Gure eskola 1981. urtean eraiki zen Sansomendi auzoan. Eskola barruko eta kanpoko espazioa ondo aprobetxatu zuten. Aipagarria da, kanpoko espazioari dagokionez, patioaren zabalera, naturaren presentzia eta auzoaren bizitzarekin duen harreman estua. Gure kanpoko jolas espazioan zuhaitzak, belarra, landareak, txoriak eta abar daude. Gainera, auzoko patio handiaz gain, beste patio txikiago bat dugu plazara ematen duena.

Eskola 8 ume talderako prestatuta egon arren, gaur egun, 6 talde daude. Barruko espazioa hiru eremuz osatua dago. Bakoitzak lorategi bat dauka, bertatik argi naturala zuzenean sartzen zaio eta jarraian areto bat dago. Areto bakoitzetik bi jolas espazio ezberdinetara sarrera zuzena egin daiteke. Bi jolas espazio hauen artean komun bat dago, biek erabili ahal izateko.

Eskolak ere baditu zenbait espazio komunak: psikomotrizitate espazioa, lokuluxka gela eta jantokia sukaldearen ondoan.

Eskola 3 auzoen artean kokatuta dago: Zabalgana/Borinbizkarra, Ehari eta Lakua. Auzoa errepide bakarraz gurutzatuta dago, beste guztia oinezkoentzako espazioak, jolas-eremu parkeak eta lorategiak dira. Hiriko erdigunearekin komunikatua dago, autobusa hartuz gero.

Langile-bizilagunez sortu zen auzoa eta gaur egun Sansomendin haien seme-alabak bizi izaten dira, horregatik, auzoa gero eta gazteagoa egiten ari da, zahartu beharrean.

2. PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK

Urteen ondorioz, gure praktika iturburu teoriko ezberdinetatik aberasten joan da. Iturburu hauek, bai autore klasikoak bai azken ikerketa zientifikoetan oinarritutakoak dira.

Azpimarratu nahi dugu ez dugula ikuspegi itxi bat, baizik eta teoría hauek gure idiosinkrasiarekin bat egiten duten ideiak, gure egiteko erara gehitu ditugu.

Honako hauek dira gure praktikaren oinarriak:

- + Atxikimendu sendoa.
- + Mugimendu askea eta jarduera autonomoa.
- + Kaltatezko zaintzak.
- + Kalitatezko harremanak.
- + Ongizate fisikoa (jolas librea kanpoko espazioetan eta elikadura osasuntsua)
- + Banakako erritmoa errespetatzea.
- + Umearen afektibitate munduarekiko errespetua (maitasun-objetua...)
- + Helduaren esku-hartzea haurra oztopatu gabe.
- + Haur bakoitzaren gizarteratze prozesuan "NI"-aren eraikuntza eta talde bizitzaren arteko oreka kontuan hartzea.
- + Familien presentzia eskolan.
- + Hezitzaile taldearen lanaren hausnarketa gaitasuna

2.1. Nola ulertzen dugu haurra?

Haurra bere erritmo propioa duen persona bezala ulertzen dugu, berezia eta originala, bere garapenaren protagonista. Bere ahalmenak garatzeko gai dena: mugitzeko, bere emozioak adierazteko, harremanak egiteko, helduekin lotura afektiboa eraikitzeke eta bere erabakiak hartzeko. Aldi berean, izaki autonomoa eta dependientea. Irudimen handia eta plazerraren bidez ikasten duena. Maitasuna jasotzeko eta emateko gai dena, baita besteekin eta inguruarekin elkarrekintzaren bidez, bizitzaz jabetzen dena ere.

2.2. Aniztasunarekiko arreta

Aniztasuna naturala da, pertsonen bereizgarria, positibotzat hartzen duguna. aniztasuna errespetatzea eta berarekin dakarren aberastasuna bultzatzea dugu helburu. Kontuan izaten ditugu: haurren garapena, erritmo biologikoak, hizkuntza, kultura, behar bereziko umeak, familia-ereduak, maila ekonomikoa... Kasu guztiak onartu eta guztietatik ikasi, aurre-iritziak sahiestuz. Hezkuntza inklusiboa ekitea, inolako bereizketarik egin gabe.

2.3. Pertsona helduaren zeregina

Hezitzailea deitzen diogu hurrez eta familiez arduratzen diren haurreskoletako helduei. Bere izakera sensibilitate handikoa izan behar da, lasaia, gozoa, pazientzia handikoa eta konszientea (erritmo ezberdinak errespetatzeko).

Haurrengan konfiantza duena, mugak jartzen dituen, irakasten ez duena eta epaitzen ez duena (bidelaguna dena).

Ziurtasun fisiko eta emozionala ematen duena baita umearen ongizateaz arduratzen dena ere. Talde eta haur bakoitzaren beharrak ezagutzuz, atxikimendu segurua helburutzat duena (jolas eremuetan bikote pedagogikoa dago eta umeak sartzen diren unetik atera arte, erreferentziazko helduekin dago).

Jolas librea ekintza pribilegiatu gisa sustatzen duena, ahalik eta debeku gutxien jarritz, egiten utziz, esku hartuz baina ez oztopatuz, umeak bere burua egiletzat har dezan. Haurra dagoen uneari begiratzen diona, hemen eta orain, ez etorkizunari.

Familiekin konfiantzazko harreman estuak sortzen dituen, komunikazio irekia lortzeko eta haiekin koordinatzeko.

2.4. Harremana eta parte-hartzea familiekin

Eskolako bizitzan parte hartzen duten egile guztiak, norabide berean eta koordinatua, lan eragile guztien arteko armonia eta egiteko onak bultzatzea funtsezkoa da. Azken finean, eskola ekosistema bat da, eragina daukana elementu guztien arteko lanean.

Funtzesko eragileak familiak dira. Hasi-hasieratik zaindu beharrekoak. Horregatik ate irekien garrantzia kontuan izaten dugu, familiek eskolarekin daukaten lehenengo kontaktua baita. Familiek eskola martxan ikusteko aukera daukate eta informazioa argi azaltzeko une aproposena da. Haurra ezagutzeko familiekin komunikazio estua izatea behar-beharrezkoa da. Horretarako giroa eta espazioak sortu behar dira eta denbora eman familiei. Eskolako bizitzaren partaide direla sentitzea nahi dugu eta beraiek daukaten lekua aitortu.

Familiekin eguneroko harremana zuzena da eta hezitzaile erreferente bat egoten da, bai sarreretan bai irteeretan. Familiak geletara sar daitezke eta behar duten denbora har dezakete.

2.5. Hizkuntzen tratamendua

Gure haurreskola D ereduakoa izan arren, hots, euskal hiztuna, familien hizkuntza errespetatzen dugu, eleaniztasunean sinisten baitugu. Euskal Herrian bi hizkuntza ofiziala ditugunez eta bi hizkuntza hauen egoera soziala nabarmen desorekatua dagoenez, euskararen ikas-prozesu goiztiarra sustatzearen aldekoak gara. Horretarako, murgiltze eredu eredu egokiena iruditzen zaigu, horrela, eguneroko bizitzaren bidez umeei euskara naturaltasunez ikasiko dute. Oso garrantzitsua deritzogu gure lehenengo hitza euskeraz izatea pertsona guztiekin. Era horretan, euskeraz egin nahi duenari laguntzen baitiogu.

Umeei begira

Umeei, eskolako langileok euskeraz berba egiten ezagutzeaz gain, euskeraz hitz egingo diegu naturaltasunez. Gazteleraz ere egitearen beharra zenbait egoeratan kontuan hartuko da. Esate baterako, harrera garaian.

Sarreretan, irteeretan eta zainketa pertsonaletan sortzen diren komunikazio-uneak zaintzea eta sustatzea, elkarrekintza horiek adierazgarriak eta aberatsak izan daitzen.

Familiei begira.

Umea familiarekin dagoenean, eguneko egonaldiari buruzko informazioa emateko unean, euskeraz ematea. Familia euskaldunekin ahoz eta idatzizko informazioa euskera hutsean egitea. Euskera Ikasten ari diren gurasoekin ere bai, une horiek zaindu eta sustatuz. Idatzizko informazioa gauzatzeko unean euskeraz eta gazteleraz hurrenkeran.

Eskolari begira.

Eskolako langileon artean euskeraren erabilpena zaindu eta indartzea. Hezitzaile bilerak euskeraz burutzea, batzar-agiria barne.

2.6. Baterako hezkuntza eta gizonen erantzukidetasuna

Gure gizartean hazi eta heztearekin lotutako murrizketak gainditzea beharrezkoa ikusten dugu. Honen harira, generoek desagertu behar dutela uste dugu. Gizarteak inposatutako jokatzeko eta aritzeko moduek, sexuen arabera gizabanako guztiei inposatzen zaizkienak, ez dute laguntzen bizitzen. Gizaki bakoitzak aukera eduki behar du ezaugarri femeninoak eta maskulinoak, bere

baitan aurkitzen dituenak, konbinatzeko eta norberak nahi duen neurrian eta egoeretan aukeraketa hori egiteko.

Genero identitatea

Haurra persona bezala ikusten saiatu eta ez neska edo mutila bezala.

Gizonen erantzunkidetasuna hezkuntzan

Beste aldetik, gizartean hazi eta heztearekin lotutako murrizketak gainditzea beharrezkoa ikusten dugu.

Helburu horri begira, Udaletxeko serbitzuek hainbat proposamen aurrera eramanten dituzte, bai aitei zuzendatutakoak (Guraso Eskola birartez) bai langileei begira (kanpoko erakunde batek antolatutako hezitzaileentzako ikastaroak).

Gure eskolan bertan ere, esparru hau zaintzen dugu:

- + Taldeko bileretan, bikotea etortzera gonbidatzen
- + Telefonoz deitu behar dugunean, lehenengoa aita izatea
- +Dokumenturen bat zinatzekotan, guraso biak egin behar dute
- +Materialaren hausnarketa, estereotipoetatik aldentzeko asmoz

Heziketa emozionala

Emozioen lanketa egiten da, garrantzia eman emozioak izendatzeari eta bidea emanez.

Harremanak

Errespetuzko harremanak sustatu. Indarkeriak ekiditzea eta ezetza adieraztea.

Eskolako antolaketa

Jolas eremuetan, kanpoan zein barruan, umearen garapen psikoebolutiboa kontuan hartuta, askotariko materiala eskaini, genero estereotiporik gabe, eta nortzuk hartzen duten materiala ohartuz.

2.7. Ingurumen-iraunkortasuna

Gure haurreskolan ingurumenaren iraunkortasuna bermatzeko, hau guztia egiten dugu:

Kontsumoarekiko ardura hartu

Argi naturalaren aldeko jarrera. Ura neurritz erabili. Marrazkiak egiteko, paperak moztu eta bi aldeak eta papera birziklatua erabili. Berogailua, 18-20 gradu bitartean. Pilak behar-beharrezko gauzetarako solilik erabili.

Materiala

Zabor poltsa gehiegi ez erabiltzeko, jolas eremu bakoitzean zabor ontzi txikiak erabiltzea. Plastikozko materiala ekiditzea, ahalik eta gutxien erabiliz eta ahalik eta naturalagoa erabiliz. Materiala zaindu, konpondu, berrerabili eta birziklatu.

Arropa

Arropa birziklatzen dugu “Global Humanitaria” eta “SOS Afrika”-ren bidez. Eskolan urtean birritan, poltsak jarri eta familiek arropa etxetik ekartzeko aukera dute. Aurreko urteetan utzi dituzten mantalak eta eskupainuak berrerabiltzea. Gurasoek erabiliko ez dituzten zenbait arropa, eskolan aprobetxatzea, umeak arroparik gabe geratzen direnean.

Jantokia

Elikagaiak, denboraldiko eta gertuko produktuak erabili. Eskolan bertan janaria prestatzea, garraiorik ez erabiliz.

3.- ANTOLAMENDUA ETA FUNTZIONAMENDUA

3.1. Antolamendua

Haur taldeak

Matrikulazio-aldia bukatutakoan, zuzendariak hurrei, zein familiei buruzko datu guztiak bilduko ditu eta hori guztia kontuan hartuta haur taldeak osatuko dira.

(Haurren jaiotze data, anaia-arrebak, bikiak ..., erabili nahi dituzten zerbitzuak: jantokirik gabekoak, jantokiak ..., zenbat ume diren aurtengoak eta zenbat lehenengo aldikoak, behar bereziko umeak...)

Hezitzaile plantillaren antolaketa eta ordutegiak

Haur taldeak osatu eta hezitzaileon interesa, iritzia eta nahia kontuan izanik banaketa egingo da: haur taldea, tutoreak eta ordutegia

Hezitzaileen bilerak

Hamabostean behin egiten ditugu, 16:00etatik 18:00ak arte, astelehenetan.

Zuzendari bilerak

Bi astetan behin egiten da hezkuntza zerbitzuan bertan. Eskoletako zuzendari guztiekin eta teknikariekina batera.

Hezitzaile bikotea

Hezitzaile bikote batzuk finkoak dira, eta urteak pasa ahala, elkarrekin jarraitzen dute. Erretiroa dela, aldaketa pertsonalak direla..., bikote batzuk desegin dira eta beste bikote batzuk hezitzaile berriekin sortu dira.

Ume taldearen antolaketa

Aurreko ikasturtekoak geratzen direnek elkarrekin jarraituko dute. Ahal den neurrian, hezitzaile berberekin ere jarraituko dute erreferentzia eta atxikimenduak galdu gabe. Kopuru handiena duten hezitzaileek jarraitzen dute talde berarekin.

Urte bateko haur taldeak

Orain dela bi urte, haur taldeak osatzeko, jaiotze data kontuan izaten hasi ginen. Umeen garapen eta beharrak oso ezberdinak direlako. Honek ere gela banaketa baldintzatzen du.

3.2. Funtzionamendua

Puntu honetan ondorengo arloak islatu nahi ditugu eguneroko elkarbizitza errazteko asmoz:

Pertsonak

Alde batetik, eskolan bi motatako partaide aurki ditzakegu:

- + **Barnekoak**: eskolan bertan lan egiten dugunok.
- + **Kanpokoak**: kanpokoak direnak, baina eskolako bizitzan eta martxan eragina dutenak.

Beste aldetik, aipatzekoa da eskolako umeen familien partehartzeari eta inplikazioari garrantzia ematen diogula, bai eskolako eguneroko bizitzan, bai ekintza berezietan (festak, tailerrak, ...) edo eskolako eta Sareko organismo ofizialetan (Eskolako eta Sareko Kontseiluetan).

Halaber, eskola bateko baliabide funtsezkoena hezkuntza-komunitatea da. Eguneroko bizitzan sortzen diren gorabeherak bideratzeko, zenbait ekimen mantxan jarri dugu, adibidez: "egiteko onak", sortzez egitasmo bat dena, baina denbora aurrera doala, pixkanaka gure praktikaren islada izateko asmoarekin sortua.

Honekin lotuta, umeekin egiten dugun lanari begira, irizpide batzuk ere baditugu:

- + Nahiz eta hezitzaile bakoitza haur jakin batzuen erreferentzia izan, beharrezkoa denean hezitzaile guztiak haur guztien ardura dugula kontuan hartu behar dugu.
- + Familiei eta umeei errespetuz tratatu hizkuntzan, keinuetan, gehiegizko mugimenduetan eta elkarrizketetan.
- + Haurrekin gaudenean, hementxe eta orainean egon behar dugu. Egoera batzuk saihestu egin behar ditugu, adibidez, sakelako telefonoaren erabilera.
- + Hurrei errespetuz hurbiltzea: naturaltasunez eta lasaitasunez, berak gidatuko gaitu hurbiltze-prozesuan.
- + Haurren jolas-espazio batean sartzean, tutoreekin hitzartzea noiz eta nola: garbiketa, arropak uztea, ...
- + Eskolako sarrerek eta korridoreak libre uztea. Norbaitekin hitz egin behar badugu, eskolako beste lekuren batean egin.

Espazioak eta materiala

Oso eragin handia daukate eskolako martxan, zer eta nola egiten dugun asko baldintzatzen duelako.

Bi motatako espazioak bereizten ditugu.

A) Barrukoak:

A eremua:

- + 2 jolas gune higiene espazio bakarra konpartituz.
- + Garbiketa espazioa.
- + Biltegia.
- + Sukaldea eta jantoki handia.
- +Hezitzaileen espazioa.
- + A eta B eremuen arteko pasabidean: zuzendari bulegoa eta langileentzako aldagela.

B eremua:

- + 2 jolas gune higiene espazio bakarra eta siestarako espazioa konpartituz.
- + Lo-kuluxka espazio handia.
- + Psikomotrizitaterako sala.
- + Bi horien artean higiene espazioa.

D eremua:

- + 4 jolas gune, horietako bik higiene espazioa eta office bat konpartitzen dituzte. Beste biek higiene espazioa partekatzen dute.
- + Lau eremu horietatik hiruk lo-kuluxka espazio propioa daukate.
- + Eskola helduentzako hiru komun ditu: haietako bi, bat dutxarekin, A eta B eremuen artean daude; bestea, D eremuan barne dago.

B) Kanpokoak:

+ 3 jolas toki: handia, ertaina eta txikia.

+ Bizikletak eta haurren aulkitxoak uzteko eremuak.

Zazpi jolas eremuetatik bostek sarbide zuzena daukate kanpoko espaziora ateratzeko.

+ Patioak (aurrekoa eta atzekoa).

Bai bata, zein bestea guztionak dira eta denok erabiltzen ditugu. Beraz, denon eginkizuna eta ardura da behar den bezala hornitu, mantendu eta zaintzea, eta beharrezkoa izanez gero, txandakatu edo txandak antolatu.

Esan beharra dago kanpoko espazioari barrukoari bezalako garrantzia ematen ahalegintzen garela.

Eskolako espazio atseginak aurkeztea, biltegiak izan gabe: sarrerak, jolastokiak, komunak, jantokiak eta siesta.

Hondatu eta/edo hausten diren materialak konpondu edo birziklatu egiten dira.

Bakoitzak erantzukizunez zaindu beharko du eskolako espazioa. Espazio komunak, norekin partekatzen diren kontuan hartzea, erabilerari eta bizitasunari buruzko erabakiak hartzeko:

Hormetan edo zoruan zerbait itsatsi behar badugu, ikus dezagun zer marka mota utz dezakeen.

Materialak garbitzeko unean, objektuen ezaugarriak kontuan hartzea (eskuz, airean sikatu...).

Jolas gunek bakoitzeko oihal eta artilezko materiala garbitzerakoan, tutoreek oihalezko poltsa batean sartuko dute, haur taldearen letra eta zenbakia adierazita.

Era berean, ingurumen-iraunkortasunaren faktorea ere kontuan hartzen dugu, eta materiala erostean, erabileran eta botatzerakoan presente izatea garrantzitsua da.

Denborak

Adin honetako umeentzat oso garrantzitsua da denboraren antolamendua, segurtasuna ematen dielako. Beraz, eskolako denborak eta ordutegiak haien beharrei erantzuna ahalik eta hoberen emateko antolatzen dira (sarrera eta irteera malguak, jolasteko eta aktibitateak egiteko denborak, jantokia, siesta, ...).

Hala ere, bizitzako arlo guztietan eta zerbitzu sozial bat bezala, eskolak ere badu bere ordutegia finkatuta: 08:00etatik 16:00etara. Ordutegi horren barne, familiek aukera izango dute hainbat ordutegietara:

+ Goizeko ordutegia: 08:00etatik 13:00etara.

+ Goizeko ordutegia, jantoki-zerbitzua eta siesta: 8:00etatik 16:00etara.

Sarrera-irteeretako orduak malguak dira, familien beharretara eta adin bakoitzaren ezaugarrietara egokituak:

+ Goizeko sarrera-ordutegia: 08:00etatik 09:30era.

+ Goizeko irteera-ordutegia: 12:30etik 13:00etara.

+ Jantoki-zerbitzua eta siestaren aurretik irteera: 13:30 inguruan.

+ Jantoki-zerbitzuaren eta siestaren ondorengo irteera-ordutegia: 15:30etik 16:00etara.

Salbuespenak salbuespen, 4 hilabetetatik urtebetera bitarteko haurren kasuan ordutegia malgua izango da, bai eskolako sarreran, bai irteeran.

Bestetik, hezitzaileen lan pertsonalerako, eskolako funtzionamendua antolatzeko eta familiei arreta emateko ere denbora izango du.

4.- ESPAZIO ETA MATERIAL HEZITZAILEAK

4.1. Espazioak

Espazioak hezigarriak dira eta hainbat ekintza balditzatzen dituzte.

Ezaugarri orokorrak

Bizitzarako espazioa eta espazio bizia.

Espazio lasaiak, zihurrak, erakargarriak, eskuragarriak, txukunak, argi naturalarekin, erosoak, armonikoak, eraldagarriak, tamaina nahikoa ...

Hezkuntza ikuspuntutik:

Jolasgune guztiek kanpoko jolas-tokira irtera zuzena izan beharko lukete.

Espazio finkoekin eta mugikorrekin hornituta.

Jolas ezberdinak egiteko aukera ematen duena

Familiarentzako (sofa) eta helduarentzako lekuarekin (mahai eta aulki handiak).

Sehasketan, espazio berezi bat bularra emateko.

Komuneko espazioak ongi apainduta eta zainduta.

Une bakoitzerako espazio egokiak antolatu: altzariak eta materialaren kokapenak ikaskuntza bideak errazten ditu eta.

Ekintza bakoitzak gune propioa badauka: lotarako, elikadurarako, higienerako...

Oro har, espazio zehatz batzuk daude eta beste batzuk haur-taldearen arabera egokitzen dira, besteak beste, arrainontzia, ispilua, horman barra tinko eta luze bat, itxidura duen espazioa, bi aulki eta mahai handi bat...

ETXEKO GIROAREN ANTZEKO ANTOLAMENDUAREN ALDE

4.2. Materialak

Lehen mailako eragile hezigarria eta ekimenaren pizgarria. Hezitzaileak ondo ezagutu, antolatu eta zaindu behar du. Materiala segurua eta garbia izan behar da. Aprobetxatu ahal dugu ingurumenean aurki dezakeguna.

Hezkuntza ikuspuntutik

Material irekia, hainbat aukera ematen duena, baita haurren ekimenari autonomiaren garaitzailea eta irudimenaren sustatzailea ere izan behar da. Materiala anitza eta eskura egon behar da leku finko batean manipulazioa bermatzeko.

Materialaren aurkezpen Kronologikoa

SEHASKA

Etzanda jarreratik eserita jarrerara:

Zapi egokiak, pilota Pikler... Komeni da bere inguruan objektu asko ez egotea, eskuen aurkikundeak ez oztopatzeko.

Eserita jarreratik autonomo ibili arte: (E. Goldshmid)

Altxor otarra (zurezko otarra): egurrezko, metalezko, larruzko, oihalezko, gomazko, kartoizko... objektuak. Adibidez: pilota Montessori, oihal gardenak, flanerak, kuboak, artilez jorratutako uztaileak, pelutxeak...

1-2 URTE:

Objektuen aurkikuntza jolasa edo jolas heuristikoa:

Zenbait gairen aurkikuntza eta konbinatzeko aukerak ematen dituenak: eduki kontrakoak bizitzeko (bete-hustu, itxi-ireki, barreiatu-metatu...)

Esate baterako: gurpildun objektuak, pilota bigunak, Waldorfen oztadarra...

2-3 URTE:

Heuristiko lantegiak:

Gai jarraiak: irina, area, ogi birrindua, semola...

Gai etenak: egurrezko zati txikiak, maskorrak, kortxoak, gaztainak...

Arrainontziak, tamaina askotariko edukiontziak...

Alfonbran: Ipuinak, abestiak, panpinak, kojinak...

Egurrezko jostailuak

Mahai proposamena (puzzleak, ogi-masa, folioak...)

Sukaldea (sinbolikoa):(sukalde tresneriak, poteak, kateak...)

Mozorratzeko jantziak

*GURE USTETAN, UMEA BAKARRA ETA ERREPIKAEZINA DA, BERAZ HEZI
ESKARMENTUAN OINARRITA DAGOEN SAILKAPENA OSO IRIZPIDE
ZABALEKIN ERABILI BEHAR DA.*

5.- JOLASERAKO AUKERAK

NOIZ

Zaintzetatik at (atsedena, higiene eta elikadura), gainerako denbora.

NON

Barruko eta kanpoko jolastokietan.

HELBURUAK

- Bere gorputzaren, berari dagozkion gertakizunen eta bere inguruaz jabetzea.
- Benetako autonomia lortzea plazerren bidez.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Errealitatearen printzipioaz jabetzea.
- Haur jolasaren etapa bakoitza ezagutu eta ulertzea.
- Jolas mota anitzen ezaugarriak ezagutzea: norberaren gorputzarekin, heuristikoa presinbolikoa, sinbolikoa, paraleloa, kooperatiboa...
- Jolasari balorea eman, esku-hartzea oztopatu gabe.
- Ziurtasun fisiko (limiteak) eta psikologikoa (norberaren erritmoak eta garapena onartuz eta errespetatuz) bermatzea.
- Material egokia, anitza eta nahikoa eskeintzea.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Jolasa bizi beharra da. Ondorioz, babestu, errespetatu, ulertu, emozionatu, konpartitu, gozatu... egiten da. Jolasa bere bizitza da: gaur, hemen eta orain.
- Partaideen arteko komunikazioa sustatzea.

PROZEDURAK

- Haur taldearen bikoizketa egitea, heldu erreferentearekin.
- Saiatzen den ekintza plazerrez disfrutatzea eta berak egindakoaren poztasunaz.
- Umeek beraiek erabakitzen dute noiz, nola, zer egin, zenbat denbora, norekin...
- Hezitzaileok, behar denean, orientabideak eman, material gehiago eskeintzea...

- Begirada konszientea eta bere lorpenei hitz adierazgarriak jartzeko.
- Umearen jolasean parte ez hartu.
- Bestearen haserrea ulertzea eta errespetatzea.
- Ezetzaren erabileraren beharra gutxitu.
- Umea jolasean ari den bitartean, jolas eremua berrantolatzea, lasaitasunez.
-

BEHAKETA

- Jolasaren kalitatea, umearen adierazpena eta jolas prozesua bera. Halaber, hezitzaile eta komunitarearen rola.

EBALUAZIOA

- Behaketa, hausnarketa eta jarraipena egitea.

6.- HEZKUNTZA PRAKTIKA

6.1 Harrera garaia

NOIZ

Familia eskolara hurbiltzen den lehenengo unetik.

NON

Eskolako espazio ezberdinetan.

HELBURUAK

- Gure helburua haurra eta hezitzailearen arteko atxikimendu afektibo sendo bat sortzea da. Harreman horrek haurrari lagundu behar dio eskolan pasako duen denbora ziurtasun fisiko eta emozionala izaten. Haurrak naturaltasunez bere beharrak azal ditzan, bere autonomiari ekinez, ingurumen fisiko eta sozialarekin elkarrekiteko gaitasuna garatuz.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Bereziki zainduko dugu haurra eta hezitzailearen artean sortzen den atxikimendua.
- Aurreikusi eta mimatu haurrarekiko hurbileko uneak (elikadura, garbitasuna, loa).
- Bakoitzari arreta pribilegiatua eskeiniz giro lasaia eta gozo batean banakako zaintzak bermatzea
- Hezitzaileak ezagutu behar ditu haurraren etxeko ohiturak eta etxeko ereduak errespetatu.
- Familiarengandik jasotako informazioarekin eta egunez egun eskolan ikusten duenarekin haur bakoitza bere ibilbidea egingo du.

KOMUNITATEAREN ROLA

Haurrak

Eskolan sartzeko unean ume bakoitzak badu bere historia pertsonala. Haur bakoitzak harrera garaia era ezberdin batean biziko du.

Familiak

Familia, haurra eta eskolaren arteko zubia da. Familien konfiantza gureganatuz umearengana errezago hurbilduko gara.

Hezitzaileak

Prozesu osoa antolatu, martxan jarri eta egunez egun baloratu, behar dena aldatuz. Prozesuaren bai begirada orokorra bai nabardura txikien zaintzaile.

Zerbitzu pertsonala

Sukaldariak, garbitzaileak, L1, L2... Harrera garaiaren berezitasunaz jakinaren gainean egongo dira.

Zuzendaria

Prozesuaren sustatzailea, hezitzaile eta familien arteko zubia eta bidelaguna.

PROZEDURAK

Ate-irekiak

Zuzendariak kudeatzen du. Familien bisitak antolatu, talde txikitik egiten dira, bai euskaraz bai gazteleraz.

Matrikulazioa

Ekainaren azken astean egiten da. Gurasoak eskolaren irudia eraikitzen hasten dira. Hemen hasten da familiarizazio prozesua.

Familiekin bilera

Uztailan egiten da, haur taldeak antolatu ondoren. Harrera garaia azaltzen zaie familiei, alde teorikoa eta praktikoa, pertsonaren rola, denboraren kudeaketa...

Banakako elkarrizketa

Irailaren hasieran egiten da.

Harrera garaiko egutegia

Egutegi hori antolatzean honako puntu hauek kontuan izaten ditugu: prozesua indibiduala dela, ume bakoitzaren erritmoak esango digula bidea, haurren adina, zenbat haurrek osatzen duten taldea, zenbat ume berriak diren eta zenbat aurreko ikasturtekoak eta jangelan eta siestan geldituko diren umeen kopurua. Egutegi irekia dela aipatzen zaie familiei. Malgutasuna dago aldaketak egiteko.

Lehenengo egunetako antolaketa

Talde txikietan izaten da eta giro lasai sortuz.

Espazio, altzariak eta materialaren antolaketa

Hezitzaileak plangintza orokor bat egiten du harrera garaiko prozesua eraginkorra izan dadin hainbat aldagai aintzat hartuz, adibidez: erreferentzizko pertsona non eseri (egunero leku berdinean), espazio atsegina nola sortu, haurren mugikortasunari lehentasuna eman (material gehiegi ez jarriz joan-etorriak ez oztopatzeko), jolaserako materialak leku finkoan egotea (umeak jakin dezala non aurkitu eta gorde), objektu transizionalaren erabilpena erraztu (leku ikusgai batean kokatuz), jolaserako material egokia aukeratu (ondoko ekintzak errazten dituenak: sartu-atera, agertu-desagertu, bete-hustu, elkartu-banandu, bildu-sakabanatu, izpiluko jolasak...)

Haur bakoitzaren erritmoa errespetatu

Egunak aurrera joan ahala haur bakoitzaren erritmoa agerian geldituko da. Harrera egutegia indibidualki aurrera eramango da, familia bakoitzarekin adostu ondoren.

Erreferentziazko persona

Prozesu osoan zehar persona bera izatea saiatzea.

Hezitzailekin sarrera, egonaldia eta irteera adostu, noiz, nola egin, zer esan...

Hezitzaileekin bi norazkoko komunikazioa bermatzeko hasieratik konfiantza eta lasaitasuna landu behar dira.

Familiekiko bi norazko komunikazioa

Sarrera eta irteera uneek bereziko garrantzia dute komunikazio on bat bermatzeko, informazioa elkartutzeko.

BEHAKETA

- Umea sakonki ezagutzeko tresna baliotsua da, baita eguneroko bizitza behar den bezala antolatzeko ere. Behaketa jakinmin kontzientean oinarrituta.
-
- Zertarako balio du behaketak?
 - + Harrera garaian umearen jokaera hobeto ulertzeko, bere beharrei erantzun egokia eskeintzeko eta eskolako egunerokoan haurrak dituen adierazpenak jasotzeko.
 - + Erreferentziazko pertsonen egonaldiaz (zailtasunak, sentimenduak,

beldurrak...) kontziente izateko.

- + Prozesuaren antolaketaren egokitasuna baloratzeko, behar diren aldaketak edo zuzenketak martxan jartzeko eta gure rolaz eta lanaz hausnartzeko.

EBALUAZIOA

Harrera garaia onuragarria izateko honako aldagaiak kontuan izaten ditugu:

Komunikaziorako bitartekoak

Soinuak, begiradak, objetuen erabilpena, joan-etorriak, objetuen bidez hartu-emanak, hurbilpen afektiboak...

Komunikazio adierazpen hartzailea

Erreferentziatzeko persona, beste haurrak, hezitzailea...

Familiarekiko bi noranzko komunikazioa

Lehen unetik konfiantza landu, gurasoei sortzen zaizkien beharrei erantzun egokia emanaz.

Zertarako behaketa eta ebaluazioa?

Umea sakonago ezagutzeko, gure esku-hartzearen egokitasuna bilatuz. Harrera garaia zehar gurasoengandik egiten diren banaketak zaintzeko, ondo antolatzeko, ahalik eta lasaienak izaten saiatzeko eta inguruaren baldintza egokiak ziurtatzeko (espazioak, materialak, denborak...)

Eskolako beste hezitzaileekin harrera garaian sakontzeko. Urtero antolatu eta garatu behar den prozesu garrantzitsu honetan ondo egindakoa kontuan hartzeko eta zailtasunak, oker egindakoa, ahal den neurrian zuzentzeko.

OHARRAK

EGOKITZALDIA versus HARRERA: bi kontzeptu eta "begirada" ezberdinak.

6.2. Eguneroko bizitza antolatzen duten ardatzak

6.2.1. Zainketen marko orokorra

Haurra eta helduaren arteko harremanaren oinarriak zaintzak dira. Zainketaz zera ulertzen dugu: umeari eskaintzen dizkiogun arreta mota guztiak.

Lehenik eta behin, guretzako zaintzak eta hezkuntza gauza bera dira. Egunerokotasunaren balio hezigarria aldarrikatu nahi dugu, eta horrela, lehen haurtzaroaren hezkuntzari behar duen izaera hezigarria eman.

Gorputzeko beharrek (loa, gosea, higiena, kontsolamendua...) fisiologikoak dirudite, baina adin honetan, fisiologia eta psikologia ez dira bereizten.

Zaintza pertsonalari premiazko tokia emateak, umearen ongizate fisiko eta bere behar psikikoak asetuko dituzten praktikak kontuan hartzea eskatzen du. Praktika horietan hauxe zaindu behar da: keinuak, tokialdaketak (umea besotan hartu eta eramateko modua), jarrera, begirada eta ahotsa.

Umeen erritmoak kontuan hartu behar dira, baita haien jatorrizko ohiturak eta preferentziak ere. Haurra bere buruaren kontzientzia hartzen ari da, eta hezitzailearengandik jasotzen duen tratua araberako eraikiko du bere buruaren irudia.

Ezinbestekoa da familiekin harremana zaintzea. Ikasturte hasierako elkarrizketan umearen ezaugarriak eta ohiturak jakinaraziko dizkigute eta gero, denbora pasa ahala, haiekin adostu behar dira sortzen diren aldaketak (pixoihala, jantziari uzteko unea, sortu ahal diren alergiak, lo arazoak, ...) erantzun egokia eman ahal izateko eta bai eskolan bai etxean norabide berean jarraitzeko.

Zainketen bizipen baikorren errepikapenak beharrezkoak dira konfiantza sortzeko, bai helduarengan, bai norberarengan eta baita bere buruarengan ere. Bizipen horiek haurraren parte-hartzea sustatzen dute, gaitasun sentimendua elikatuz.

Umeak errespetatua sentitu behar du. Hau da: bere negarrak, keinuak, mugimenduak, nahiak edo interesak erantzun egokia jasotzea. Haurrak, bere jokabideak eta bere erantzunek inguruan eragina dutela bizi behar du.

Garrantzitsua da erreferenteak mantentzea, bai zainketak egiten duen pertsonari begira bai egiteko eran.

Hainbat egoeratan hezitzailearekiko preferentza ager daiteke, naturaltasunez onartu.

Leku finko eta seguru izatea bazkaltzeko, hamaiketarako, lo egiteko, higienerako... ekintza bakoitzak behar dituen gauzeekin. Horrela egonkortasuna eta segurtasuna emango diegu umei.

- + Nahiz eta ohiturak eta arauak egon eta horiek errespetatu behar, une horietan gure joera hurbila eta irekia izan behar da:
- + Gertatuko dena azaldu. Egin baino lehen hurbildu, bere alturan jarri,
- + Lasai azaldu, baimena eskatu.
- + Lehenengoz ohartarazi eta bere ezetza edo baietza errespetatu.
- + Ondoren berriro esatea.
- + Azkenean bete azaldu diozuna.
- + Ez inposatu, gonbidatu, proposatu.
- + Lankidetzaz bilatzen eta sustatzen dugu, ez obedientzia.

Zaintzetan mugimendu librearekin errespetatzen dugu. Helduak espazioa antolatzen du hori posiblea izan dadin.

Gure eskolan egiteko erak denon artean adostuta daude. Horrela, eskolako partaideak jakinaren gainean egongo gara. Gure funtzionamendurako oso garrantzitsuak direla iruditzen zaigu.

“El amor, los cuidados tienen que envolver al niño y la niña como un baño cálido y tranquilo”

“Actuar conjuntamente con el adulto es fuente de placer” Emmi Pikler.

6.2.2. Harrera- Agurra

NOIZ

Egunero, eskolako ordutegian, familia eskolan azaltzen den momentutik.

NON

Sarrera: jolas eremuetan (geletan).

Irteera: gehienetan norberaren jolas eremuan egiten da. Azpimarratu behar da hiru irteera unek daudela: bazkaldu aurretik, bazkaldu ondoren eta siesta ondorekoa. Azken bi hauek geletatik edo beste lekuetatik egin daitezke, adibidez aretoan, patioan (baina ez hasieratik) edo gela zehatz batean.

Siestan, umeek lotan jarraitzen badute, gurasoak dira umeak esnatzen dituztenak.

HELBURUAK

- “Ongi etorria” estimatfua, berkiem zain gaundela sentitzea, bai familia, bai umea.
- Sarrera ona egitearen garrantzia, eta daukan eragina umearen egonaldian informazioa elkar trukitzea.
- Konfidantza izatea, batez ere familiekin, haiek eroso sentitu daitezela edozein gauza komentatzeko.
- Umeak behar duen denboraz ohartzeari, bere erritmoa errespetatuz.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Familia eta eskolaren arteko “zubia” da.
- Inguruaren antolaketaren arduraduna: espazioa, materiala, giroa...
- Umea eta familiaren beharrak ezagutu eta errespetatzea. Adib. berokia kendu nahi ez badu denbora eman...
- Sarreran eta irteeran giro lasaia mantentzea, denbora eman bai umeari eta bai familiari aldentze eta elkartzeko uneetan lagunduz.
- Familiak dakarren informazioa jaso eta horren arabera egonaldia antolatu.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Partaide guztiei momentu honen garrantzia jakinaraztea; haurrak nola bizi dezakeen momento hau azaldu, adierazi ditzaketen jarrera desberdinak ulertzeko eta malgutasunaz jokatzeko.
- Espazioak zaintzea. Agente desberdinen arteko koordinazioa: ordutegiak malgotasunez adostea, egoera desberdinak ulertu eta errespetatu, atezainaren paperaren garrantzia prozesu honetan guztian, atezainari ematen zaion informazioa hezitzaileok aurretik adostea.
- Giro lasaia mantentzea, jarrera atsegina eta alai azaltzea agurtzerakoan.

PROZEDURAK

- Eguneroko hartu-emana, familia eta eskolaren arteko harremanaren gakoa da, konfidantzaren oinarria. Bi noranzko komunikazioaren baliabiderik nagusia.
- Bi egoera esanguratsu hauek (sarrera-irteera), jolas eremauan egitea eta taldeko heldu erreferente bat egotea. Arreta pertsonala bai umeari eta familiari eskeiniz.
- Giro lasaia sortzea, presarik gabe bizitzeko egoerak dira, familiek egiten dutena errespetatu. Umeen eta familien beharrak eta ohiturak errespetatu.
- Dena den, bi momentu horiek badituzte bere ezaugarri propioak:

Harrera

- Familiekin egiten den lehenengo bileran ondo azaldu momentu honek daukan garrantzia eta zentzua. Azaldu zeintzuk izan daitezken jarrera egokiak eta kontuan hartu beharrezkoak: patzientzia, presarik gabe, presiorik gabe, lasaitasuna...
- Familiek gelan sartzeko aukera dute, eta bertan egoteko behar duten denbora eskeintzen zaie. Hortarako leku aproposak antolatzen dira (sofa, besaulkia...).
- Harrera pertsonala bermatzeko, bigarren hezitzailearen presentzia ezinbestekoa da. Hezitzaile batek harrera egiten duen bitartean, besteak ordurako dauden haurrei eskeintzen die arreta.
- Euren aulkian badatoz, errespetatu eta utzi bertan, umeak jaitsi nahi duen momentura arte.
- Zenbait taldetan, lehen orduan haur kopuru handia danean, bigarren hezitzailearen sarrerarekin batera taldea bikoizten da.

Irteera

- Egunean zehar hiru irteera uneak ditugu: bazkaldu aurretik, bazkaldu ondoren eta siesta ondoren. Lehenengo biak jolas eremuetan egiten dira eta siesta ondorengoak bai jolas eremuan edo aretoan egin daiteke (haur taldearen kopuru, lo beharren... araberan).
- Umeari azaldu behar zaio, lotara laguntzen dion hezitzailea esnatzerakoan ez dela egongo.
- Familiak datozenean, berrelkartzeari denbora eman, eta gero hezitzaileok hurbilduko gara informazioa ematera...alde positiboak nabarmentzea (gehien bat umea goiz txarra pasa duenean). Ahal den neurrian saiatuko gara umea partaide sentitzen, hizkuntza zainduz.

BEHAKETA

- Umearen bizipena (gihartonoa, begirada, adierazpenak, jokaerak...), baita familia eta hezitzailea ere.
- Behatu aldaketaren bat sorteen den bai sartzekoan, bai irteterakoan.

EBALUAZIOA

- Behatutako guztia hausnartu: familia, umea, gu geu, materiala, espazioa, denbora...
- Prozesuaren eta partaide guztien jokaerez hausnartu.

OHARRAK

Noiz atalean: salbuespenak daude: medikuarengan joaten direnean, bat batean agertzen den...

6.2.3. Elikadura

6.2.3.1. Bazkaria

NOIZ

Sehaska jolasgunean ume bakoitzak behar duenean eta beste jolasguneetan 11:45 etik aurrera gutxi gora behera, sukaldetik karroa ekartzen dutenean.

NON

Sehaskako umeak beraien jolasgunean bertan, eta urte betekoak norberaren jangelan edo jolasgunean.

Bi urtekoak eta urte beteko batzuk ere jangela handian.

HELBURUAK

- Elikatzeko behar fisikoak asetzea eta horretaz aparte, elikaduraz gozatzea, jaki ezberdinak pixkanaka ezagutzea, onartzea eta elikadura orekatuaren ohiturak pixkanaka bereganatzea.
- Helduen eta haurren arteko harremanetarako une pribilegiatu gisa baliatzea: elkar ezagutzea. Harremanak eta komunikazioa sendotzea, ume txikiak helduarekin eta nagusienak beste umeekin, momentu goxoa, erosa eta lasaia sortzea.
- Banakako autonomia garatzeko gonbita eta aukera izatea: koilara eta edalontziaren erabileran, murtxikatze-prozesuan... zenbat jan nahi duten, noiz edan...
- Ohitura sozial eta higienikoak poliki-poliki barneratzea. Ohitura onak bereganatzea (koilara, sardexka, kristalezko tresneria erabiltze prozesuan, nagusitzen diren neurrian, janarian zein kidearen platerean eskua ez sartzea eta ez jolastea harekin, eserita mantentzea, gorputz-jarrera ona izatea, bukatzean bere adurzapia, koilara... jasotzea, adinaren arabera...)
- Jaiotzez ditugun berezko auto-erregulazio seinaleak errespetatzea.
- Hainbat elikagaien eraldaketaz jabetzea: zati batetik zatiketara, berotik hotzera, osorik zapaldura...

HEZITZAILEAREN ROLA

- Presarik gabeko une goxoa, lasaia, atsegina izan dadila ahalegindu.
- Horrek eskatzen du aurretik behar den guztia antolatzea: espazioa, tresnak, jateko txandak, erritualak, hezitzailea aulkian eserita egotea altxatu behar ez izateko eta dena eskura edukitzeko.
- Haurraren gaitasunak sustatu, aukera eta denbora eman, berak egin ahal duena egiteko, horrela ere, bera bere frustrazio txikiak onartzen hasiko da.
- Erreferentziazko hezitzaile berarekin bazkaltzea, ahal den neurrian behintzat.
- Lagundu beharrezkoa denean soilik haurrari galdetuz, oztopatu gabe.
- Elikadurari buruzko informazioa eta gomendioak familiei ematea.
- Behatu umea ezagutzeko, oharrak idatziz jaso, kidearekin konpartitu,..., beharrezkoak diren aldaketak egin ahal izateko.
- Nola bazkaldu eta bizi duten bere seme-alabek, familiei informazioa ematea, narrazioaren bitartez.
- Sehaska haur taldeetan familiek ekarritako janaria prestatu eta ematea.
- Bakoitzaren beharren arabera kontitate kontuan hartuz, bazkaria banatzea.
- Mahaia eta ingurua garbia eta ordenatuta mantentzea.
- Komunikazioa eta harremanak erraztea, orainean eta gertukoenean eta hauetaz disfrutatzea.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Familiaren ohiturak ezagutzea ezinbestekoa da, ahal den neurrian errespetatu eta beti bi norantzazko komunikazioa mantendu eta koordinazioa bilatu behar da.
- Sukaldariak, jangelako laguntzaileak, garbitzaileak... antolaketa prozesua ezagutu eta zaindu behar dute (behar diren tresnak, kontitateak, denborak...)
- Altzarien eta tresnen kokapena ezagutzea eta zaintzea.
- Denborak eta espazioak antolatzea.
- Eskolako langile guztien artean harremanetarako bideak eta jarduteko protokolo bat ezartzea: sukaldariak, garbitzaileak eta hezitzaileak.
- Gai honen inguruko etengabeko hausnarketa egitea.
- Guztion artean espazioen txukuntasuna eta ordena mantentzea.
- Elikagai ekologikoez, sasoiakoez eta hurbilekoez hornitzea.
- Jasotako formazioan emandako aginteak jarraituz, bazkaria prestatzea. Prestatu ondoren beste jantokietara eraman eta jantoki handian mahai gainean jartzea.

PROZEDURAK

- Zarata eta presarik gabeko giroan, haurraren erritmo pertsonala errespetatzea eta helduaren gertutasuna bermatzea.
- Sehaskako umeen erritmoa eta ordutegiak errespetatzea.

- Sukaldariei agur egin eta eskerrak eman bazkaria ekartzen digutenean.
- Jantokira joan baino lehen, bazkaltzeko ordua dela abisatu umeei erritual batekin.
- Sarrerako errituala: Hezitzaileen jarrera eta ahozko mezua, eskuak garbitzea, mantala eta adurzapia erakustea...
- Eskuak konketan ura eta xaboiarekin garbitu. Ondoren, esku oihal txiki batez eskuak lehortu, eta gero jolasgunean, laguntzarekin edo laguntzarik gabe, amantalak, botoiak aurrean jantziko dituzte. Talde txikian jantokira joan eta bakoitza bere aulkian eserita, adurzapia jartzen lagunduko diogu eta alde batean lotuko dugu.
- Umeak joan baino lehen hezitzaile batek prestatuko du lehenengo platera hozten joateko eta bigarrenak haien aurrean prestatu eta moztuko ditugu.
- Mahai bakoitzean hezitzaile bat aurrera begira eseriko da eta bere atzean, mahai batean, tresneria izango ditu, gauzak eskura izateko eta ez altxatzeko.
- Bakoitzari behar janaria bol batean eta koilararekin ematea.
- Bazkaltzen hasteko eta jarraitzeko, bakoitzak behar duen denbora ematea, laguntza behar dutela ikusiz gero, eskeiniko zaie.
- Ura behar dutenean, kristalezko edalontzietan ematea eta ogia ondoko mahaian egongo da.
- Bukatu ondoren, umeek bere tresnak jasotzen lagundu, ahal duen neurrian, amantala erantzi eta dagokion lekuan utzi.
- Komunean aurpegia eta eskuak garbitu
- Bazkaldu aurretik eta ondoren garbiketaren ere, umeari autonomiarako gonbita egiten zaio: eskuak, aurpegia garbitzeko, lehortzeko...
- Helduaren kokapena eta jokaera ere zaintzen da.
- Haurraren garapen psikoebolutoibaren arabera, hezitzaileen eta haren arteko harremanak aldatuz joango dira: lehenengoz magalean, gero, bere kabuz esertzeko gai, koilararen erabilera eta helduarekiko harremana hain estuak ez direnean, mahaian eta aulkian eta helduen gomendioak jarraitzeko gai direnean, euren aulkietan eserita eta tresneriaren teknika behin barneratuta, bestearekin bazkaltzera.
- Arau argi batzuk jarri eta umeei azalduko zaizkie: eserita egotea, lagunak eta haien janaria errespetatzea, gauzak edo janaria lurrera ez botatzea.
- Amantalak, astelehenero garbi ekartzea, ostiralero kasilerioan utzi eta etxera eramane garbitzera.
- Haurrari autonomiaz jateko aukera gehien ematen dioten tresnak eskaintzea: kristalezko bola, tamaina egokiko koilara eta edalontzia. Sardexka eskaintzea haurra prest dagoenean, lagungarri izateko eta ez oztupo bat bere autonomian.
- Haurrentzako txanda egokiak ezartzea eta errespetuz mantentzea.
- Aldaketak eta bazkari berria banan banan sartzea. Zerbait ondo ez badoa, gustatu ez zaiolako edo bere heltze unea ez delako, aurreko pausora itzultzea.
- Koordinazioa hezkuntza-bikotearekin eta lanaldia bikote batekin osatzen duen pertsona bat badago, azaldu eta kontatu haurrak nola igaro duen goiza.

BEHAKETA

- Denbora aurrera joan ahala, umearen bilakaera arretaz jarraitzen da. Bai trebetasun fisikoak: gorputz-kontrola, eskuen trebetasuna, murtzikatzeko gaitasuna, zenbat kantitatea jaten duten... baita egoera psikologikoa eta emozionala ere: jarrera, ohiturak, autonomia, emozioak, harremanak...
- Janariaren aurrean, umearen jarrera nolakoa den eta zer adierazten duen.
- Aztertzeko eta ebaluatzeko elementuak: pertsona helduaren zeregina, haurraren erritmoaren errespetua, ingurukoekin sortzen diren harremanak, giro atsegina eta egokia, autonomiaren aldetik pausoak ematen diren....

EBALUAZIOA

- Miatu eta baloratu prozesuko arlo guztiak: helduen papera, umeari eta bere erritmoari zor zaien errespetua, sortzen diren ume-heldu (hezitzailearekin, sukaldariarekin...) eta umeen arteko harremanak, giroa...
- Behaketak idatziz jaso eta konpartitu, baloratu gure bikotearekin eta jantokirako hezitzaileekin behar diren gauzak aldatzeko edo hobetzeko.
- Sukaldariarekin informazioa trukitzea (zaporeak, testurak, kantitateak...) behar diren gauzak aldatzeko edo hobetzeko eta jakiteko zer jaten ari diren.
- Banakako zein guztion arteko hausnarketa eta behaketaren bitartez egingo dugu.

OHARRAK

- Elikapen-adituen aholkuak jarraituz, osatzen dira menuak. Menua ekologikoa da. Sukaldariek astero berrikusten dituzte menuak hobekuntzak eta balizko aldaketak komentatuz.
- Gure eskolak sukalde propioa dauka.
- Aipatzekoa da gero eta ume gehiago gelditzen direla eskolan bazkaltzen, gero eta txikiagoak direla, eta gure eskolan jangela dibertsifikatuen alde jo dugula.

6.2.3.2. Hamaiketakoa

Elikadurari buruz esandako guztia esparru honetan baliagarria da. Hortik aparte hamaiketakoari buruz zehazki, nabardura batzuk aipatuko ditugu.

NOIZ

Hamaiketakoa goizean zehar egiten da, 10:00etatik eta 10:30ak arte gehienetan, haur taldea eta ume bakoitzaren egoera eta beharren arabera.

NON

Talde bakoitzak, bere gelan eta udaran eguraldi onarekin, kanpoko jolas gunean.

HELBURUAK

- Frutaren aniztasunaz disfrutatzea, zaporeak, koloreak, testurak ...
- Frutaren garrantzia umearen elikaduran sustatzea.
- Energia berreskuratzea, gosea eta egarria asetzea.
- Errutinak eta erritualak lantzea.
- Sozializazioa. Elkartzeko eta harremana izateko unea biziitzea.
- Urtaro bakoitzari dagozkion hainbat kanta, erretaila...ezagutzeko aukera eskaintzea.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Bazkaria atalean aipatutakoak.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Bazkarian aipatutakoak.

PROZEDURAK

- Talde osoan, txikian edo banaka.
- Eseri aurretik eta bukatu ondoren, ur epelaz bustitako eskuoihal batekin, eskuak garbitu.
- Hezitzaileok fruta umeen aurrean zuritzen dugu, umeak hainbat eraldaketaz jabetzeko aukera eskainiz (pieza osotik zatietara...).
- Helduok ere jaten dugu, imitazio eredu bat gara .
- Fruta motaren arabera edo taldearen ezaugarrien arabera, katilu indibidualak erabiliko dira, bestela plater handi batetik banan-banan zati bana hartuko dute.
- Presarik gabe jateko ohitura landu, ondo murtxikatzeko ohitura sustatu, ume bakoitzak nahi duen adina jaten du eta jan nahi ez dune ez dugu behartuko.
- Fruta eskaini baino lehen, erakutsiko zaie zeintzuk diren frutaren ezaugarriak.
- Erritualak antolatzen dira, haurrari ziurtasuna emateko.

BEHAKETA

- Bazkaria atalean aipatutakoa.

EBALUAZIOA

- Bazkaria atalean aipatutakoa.

6.2.4.- Higienea

“Los cuidados favorecen la tendencia innata del niño a “habitar” su cuerpo y a sentir el placer de las funciones corporales, a aceptar los límites por su piel, por esta membrana frontera que separa el yo del no-yo.

De los cuidados infantiles satisfactorios, fluye la construcción de un sentimiento de continuidad del ser, base de la fuerza del yo.

Cada carencia de cuidados conlleva una interrupción de este sentimiento de continuidad del ser y de ello resulta un debilitamiento del yo”

Donald W. Winnicott

NOIZ

Garbitasun une hauek, goizean zehar: haur-oihala aldatu, mukiak garbitu, busti eta zikintzen denean, arropaz aldatu behar zaionean, zauriak egiten direnean, ilea orraztu, hainbat materialarekin esperimentatzeko unean, adibidez, ogi orearekin, patiotik sartu ondoren, jantokira joan baino lehen, jantokitik itzuli eta gero eta esnatu ondoren.

Batzuetan beraiek zikin daudela eta guk garbitzea nahi dutela esaten digutenean.

Beste batzuetan, gu geu konturatzen garenean, mukiak dituztelako, busti egin direlako, kaka egin dutelako...

NON

Jolas eremu bien artean higienerako espazioa daukagu, eta gehienetan hortxe egiten dira pixoihalen aldaketak.

Eskuen garbiketa normalean komunean egiten dugu, garbiontzi txikiak erabiliz, baina zenbait kasuetan, azpila edo garbiontzia jolas eremura eramanez eta hantxe

bertan egiten dugu, batez ere umeak txikiak direnean.

Beharra sortzen den lekuan bertan: patioan, psiko espazioan...

HELBURUAK

- Umearen ongizate fisiko eta emozionala bermatzea. Segurua, onartua eta baloratua sentitzea.
- Oinarrizko garbitasun behar fisiologikoak asetzea.
- Bere parte-hartze aske eta ebolutiboaren arabera, pixkanaka autonomiaren prozesuan bideratzea, eta garbi egoteko desioa sustatzea eta lantzea.
- Norberaren burua eta bere inguruko kontzientziaren jabetasuna sustatzea eta gorputza eagutzeko aukera ematea.
- Helduekiko eta kidekiko harremanak eta komunikazioa sendotzea eta hauetaz disfruta-tzea.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Lasaitasun giroa sortu, babestu eta mantentzea, xehetasun txikiak zainduz, presarik gabeko une goxoa izan dadin.
- Prozesuko elementuak, eguneroko jardueretan, aurreikusi behar dira, behar den guztia, bai espazioa bai baliabide guztiak, aurretik prestatu, zaindu eta antolatzea.
- Haurraren gaitasunak sustatzea, bere parte-hartzeko interesa eta nahiari lekua emanaz, berak egin ahal duena egiteko, horrela ere, bera bere frustrazio txikiak onartzen hasiko da.
- Segurtasuna eta lasaitasuna transmititzea. Hitzek, keinuek eta begiradek ere oso garrantzi handia daukate, bata-besteko momentu hauetan.
- Banakako harremana bermatzea, sortzen den elkarrenganako harremana atsegina, maitekorra, konfiantzazkoa eta sendoa izan dadin.
- Erreferenteak izatea, umearentzat “egiteko eredua” baikara, beraz gure higiena zaindu ere egin behar dugu, haien aurrean, umeek horrela ikusi eta ikasteko.
- Umearen higiena seinaleei adi egotea eta erantzun egokia ematea.
- Familien egiteko erak eta ohiturak errespetatzea eta haiekin komunikazio sendoa izatea, elkarlana egiteko.
- Familiei jakinaraztea nola ulertzen dugun egunerokotasunean pixoihalen aldatzea eta gorputzaren zainketa, eta nola eta zergatik antolatzen dugun modu horretan.
- Behaketatik eta gurasoengandik jasotako informazioa bikotearekin trukitzea.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Hezitzaile erreferentea ez den norbaitek parte hartu behar badu haurraren zaintzetan, aurretik bere ohiturak ondo ezagutu behar ditu, haurrarekin egiteko erari koherentzia emateko.
- Espazioak garbi, txukun eta ondo hornituta mantentzea (adur-zapiak, esku-zapiak, esku-oihalak, komuneko papera...).
- Eskolako jokaerak ezagutzea eta errespetatzea.

PROZEDURAK (pixoihala, eskuak, aurpegia, mukiak...)

- Behar diren elementu guztiak aurretik prestatuz.
- Giro lasaia eta atsegina sortuz.
- Higienearen inguruko erritualak sortuz eta zainduz.
- Haur taldean banakako erritmoa bermatuz: txandak eta zainketei jarraitasuna izanez.
- Haurrengana hurbilduz, eta aurrez esanez zer egingo dugun, espero ez duen ekintzarik ez izateko. Horrela, jarduerak barneratu, irudikatu eta aurrea hartu ahal izango ditu.
- Hezitzaileon eta umearen benetako kooperazioa izan dadin, hezitzaileok umeen beharrak, nahiak, interesak, eta abar kontuan hartu behar ditugu, adostasunera helduz.
- Itxarote-denbora ematea, gure hitzak nola iristen zaizkion jakiteko, hau da, hezitzaileak hasi duen keinua edo eskaria bere ahalbideekin erantzuteko.
- Haien kabuz joateko edo egiteko aukera ematen zaie, umea autonomia baldin bada, bere kabuz egiten utziz.
- Higienarako erabiliko ditugun elementuak erakutsiz, ikusiz, ukituz, erabiltzeko saiakerak.
- Haurraren gorputza manipulatzean, mugimendu samurrak eta atseginak erabiliz, haurrentzat sentsazio atsegina transmitituz, umeari egin behar duguna pausoz pauso jakinaraziko diogu: hitzen bidez, kienuen bidez, begiradaz. Bere erreakzioak eta erantzunak ere itxaron eta kontuan hartuz.
- Umearen gauza pertsonalak (haur-oihalak esku-oihala, krema, aldatzeko arropa, orrazia...), bakoitzari dagokion lekuan mantenduz.
- Informazioa elkarri trukatu, familien zalantzak entzunez.

Haur oihalaren aldaketa

- Harrera garaian, lehenengo pixoihal aldaketa, haurrekin etortzen diren pertsonak egingo dute, eta gu, hezitzaileok, aurrean behatzen egongo gara xehetasunak ezagutzeko, umearen keinuak uler diezazkiogun.
- Erreferentziazko hezitzaileak egin, segurtasun zailtasunak dituzten haurren kasuetan, espresuki, ahalik eta gehien errespetatzen saiatuz.
- Haurrari bere izenaz deituz, eta pixoihala aldatuko diogula esanez, hurbiletik hitz eginez, bere arreta bilatuz eta begietara begiratzuz.

- Oso momentu pertsonala da, banakakoa, harreman estuak sendotzeko aproposa. Beraz, atsegina egiten saiatuz, bera errespetuz ukituz, lasai mugituz, goxo hitz eginez berarentzako era atseginean. Beti berdin eginez, errutina lantzeko. Horrela, zer datorren jakingo dute eta horrek ere segurtasuna eta lasaitasuna emango dizkie.
- Hezitzaile erreferentea ez badago, haur-oihala aldatzeko orduan, haurrari ondo azalduko diogu nork eta nola egingo dion, ohartzeko behar duen denbora emanez.
- Aldaketan eragina izan dezaketen erreferentea ez den pertsonak edo beharrezkoak ez diren objektuek saihestuz.
- Umearen garapen motorra kontuan hartuta, haurra besoetan eusteko modua zainduz.
- Txisa edo kaka komunean egiteko, eskatzen ez badute, gogoratu edo gonbidatuko dugu, eta egiteko behar duten laguntza eskainiko diogu, era autonomoagoan egin dezaten saiatuz.

Esfinterren kontrolak

- Arreta berezia eskatzen du: familien eskaerak, haurraren nahia eta gaitasuna, eskolaren irizpidea (pixoihala ez da kentzen, uzten da, ez da irakasten) ... guztia tentuz kudeatuz, hezitzailearen eginbeharra.
- Haurraren erritmo pertsonalaren errespetutik, familiarizazio prozesura dena familiekin bi noranzko komunikazio etengabekoan oinarrituz.
- Prozesu honen premisak hauek dira:
 - + Ume bakoitzaren erritmo indibiduala.
 - + Heldutasuna: fisiologikoa, psikologikoa eta emozionala.
 - + Nahia: Umearen erabaki pertsonala da, haurraren kontzesio bat da.

Aurpegia eta eskuen garbiketa

Bi era:

- + 12/18 hilabete: eskua eskatu eta ur epeletan bustitako eskupainu batekin garbituz.
- + 18 hilabetik aurrera: bi haur baino gehiago ez, konketan urrats asko duen jarduera delako (xaboia eman, garbitu eta lehortu). Ez da laguntzea bakarrik, nola egiten den erakustea baizik. Haurrak erantzuten ez badu, hezitzaileok lagunduko diogu, baina ez dugu harengatik egingo.
- Ume bakoitzeko esku-oihal txikiak erabiliz, errezagoak dira manipulatzeko.
- Zutik mantentzeko eta ibiltzeko gai badira, komuneko konketan banaka edo bizpahiru pertsonen taldean joango dira. Horretarako, behar diren urez

betetako garbiontziak prestatuko ditugu eta xaboia eskuratuko diegu, bakoitzak bere gaitasunaren arabera eta gure laguntzaz baliatuz era autonomoenean higieena egiteko. Gero oihal txiki batekin lehortuz eskuak eta aurpegia.

Mukiak

- Haurrentzat mukiak garbitzea oso ekintza sentikorra denez, maitasunez eta leuntasunez egin behar dugu.
- Haurtxoekin egokiagoa da oihal zati txiki batekin garbitzea, eta haur helduekin paper bigunaz. Muki lehorrak edukiz gero, olio edo ur pixka batez bustitako zapi batekin garbituz, atseginagoa baita.
- Deitu izenez, mukiak garbitu nahi dizkiogula aurrez aurre esanez, bere sudurra edo gurea seinalatuz eta esanez: “mukiak dituzu eta sudurra garbitu nahi dizut mesedez” eta bukatutakoan “eskerrik asko”.
- Bere baimena eman ez gero, sudurra leuntasunez garbituz, sudurra ez estaltzeko. Eta baimena eman ezean, denbora eman eta berriro gonbita eginez.
- Sudurra garbitu eta gero, paperontzira botatzen da erabilitakoa, haiek egiteko aukera emanaz.

Arropak aldatzeko edota gorputza garbitzeko

- Bakoitzaren beharrak eta ohiturak errespetatuz egingo dugu.
- Momentu horiek aprobetxatuko ditugu umeekiko harremanak sendotzeko.
- Bakoitzak izango du kutxa bat komunean, behar dituen arropekin.

BEHAKETA

- Denbora aurrera joan ahala, umearen aurrerapen prozesua arretaz jarraitzen da. Bai trebetasun fisikoei begira (gorputz-kontrola, eskuen trebetasuna...), baita egoera psikologikoa eta emozionalari begira (jarrera, emozioak, harremanak...).
- Espazioaren antolamendua eta elementuen erabilpena egokia den ala ez. Egoera eta giroaren ezaugarriak aztertu (garbitasuna, lasaitasuna, ondo hornituta dauden ala ez, harreman egokia posiblea egiten duen...).
- Gure praktika aztertu: jarrerak, ekintzak, nola ikusten dugun eta ulertzen dugun arlo hori, umearekin une horietan harremanak nolakoak diren (gure keinuak, hizkuntza, begietara begiratzen badiogu...), bikotearekin eta beste lankideekin akordioak izatea.
- Haurraren heldutasunaren eta esfinterrak kontrolatzeko prozesua.

EBALUAZIOA

- Umearen erantzuna, eboluzioa eta bere autonomia aztertuko da.
- Hezitzailearen jarrera, bere kidearekin partekatuz.
- Hausnarketa egitea (espazioak, materialak, denborak) eta baliabideak bilatzea. Horretan hezitzaile bikoteek, taldeek eta komunitateak parte hartu behar dute.
- Egunez egunekoa eta zuzena izan behar da, zuzentzeko eta sortzen diren beharrei erantzuna eman ahal izateko.
- Une horretan, modu batean edo bestean, zer ikusirik daukaten elementu guztiak arretaz behatu, aztertu eta baloratu.(prozeduran aipatutako elementuak).

6.2.5.- Atsedena eta loa

Norberaren erritmo indibidualak errespetatuz, erantzun behar den umearen bizi-beharra atsedena da, ordutegi finkorik barik.

NOIZ

Goizean zehar umeak behar duenean. Ez dugu umea esnatzen.

NON

Leku apropos batean, jolasgunean, siestarako espazioetan, patioan...

HELBURUAK

- Atsedeneko beharrei erantzuna ematea segurtasun fisiko eta emozionala bermatzen duen inguru batean.
- Umearen segurtasuna indartu eta beldurrak ekiditzea, umearen baitan lasaitasuna lortzea. Lo egiteko momentua plazerez bizitzea.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Umearen erreferenteak eta bidelagunak izatea.
- Atsedenen antolaketa eta zergatiak familiekin elkar partekatzea.
- Umearen beharrak ezagutu eta asetzea jasotako informazioarekin. Bakoitzaren erritmoa errespetatzea.
- Leku eta egoera aproposak sortzea, bai lokartzerakoan, bai esnatzerakoan.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Giro lasaia izaten laguntzea, espazioak eta denborak errespetatu eta zainduz.

PROZEDURAK

- Umearen beharrak errespetatzea eta ezagutzea, logurea, nekea... Eskeintzea leku aproposa behar hori asetzeko: besoak, aulkia, sofa...
- Lotara joan aurretik, umeari auresaten zaio.
- Deskantsatzeko lekua finkoa da eta arropa eroso.
- Taldeko egonkortasuna mantetzeko, hezitzaile batek umeari lokartzen lagunduko dio eta beste hezitzaileak taldearen ardura hartuko du.
- Atxikimedu-objektuak umeari eskura izatea.
- Prozesuaren errutina edo ordena egunero errepikatzea
 - ◆ Lo-kuluxka espazioa, eta umearentzako esanguratsuak diren objektuak prest izatea (txupetea, panpina, zapia...). Argi apur bat egon behar da eta leihoa irekita, aireztatzeko.
 - ◆ Ez dago ordu finkorik lotarako, ezta musikarik ere.
 - ◆ Bazkaldu eta garbitu ostean, pixkanaka giro lasaia sortzea. Umeari esaten zaio lo egitera joango dela. Ondoren, ume bakoitzak bere kabuz erantzen du arropa (laguntza emanez, behar izanez gero) eta denok elkarrekin, taldeka edo banaka lo egiteko espaziora joaten dira hezitzaile batekin edo biek behar dituzten gauzeekin eramaten.
 - ◆ Ume bakoitzaren atsedeen beharra errespetatzen da. Batzuk bere kabuz esnatzen dira eta beste batzuk, ordea, gurasoek esnaratzen dituzte.
 - ◆ Bakoitzari eskeintzen zaio lokartzeko behar duen laguntza: laztanduz, ukituz, besoetan hartuz...
 - ◆ Beti erreferente hezitzailea umeari egongo da.
 - ◆ Umeak esnatu ahala, arropa eta zapatilak janzen lagundu, pixoihala zikin badago aldatu eta ilea orrazteko aukera eskainiko zaie. Ondoren, beste espazio batera joaten dira.
 - ◆ Batzuetan, hasieran, norberaren aulkitxo erabiltzen da, espazio afektibo eta babeslea delako.

BEHAKETA

- Umearen seinalei, beharrei eta sentimenduei adi egon behar dugu.
- Oso garrantzitsua da behaketa konzientea izatea. Haurren jarraipena egunerokoa izan behar da.

EBALUAZIOA

- Miatu eta baloratzea prozesuko atal guztiak: umeari zor zaion errespetua, bere erritmoa, sortzen diren harremanak, giroa, norberaren autonomian egindako bidea hezitzaileen jarrera... Hau dena baloratu familiekin, jokabide berberak edo antzekoak jarraitzeko.
- Gure helburuak lortuak izan diren ala ez.
- Ebaluazio zuzena, behaketaren bidez, bikotearekin eta beste hezitzaileekin partekatuz, beharrak ezagutzeko, erantzun egokia emateko.

OHARRAK

- Aire askean lo egitearen alde gaude, hainbeste arrazoiengatik, loa lasaiagoa eta luzeagoa delako, umeak gutxiago gaixotzen direlako, besteak beste.

7.- BESTELAKO EKINTZAK

Gure eguneroko praktika hezigarriaren oinarria **jolas librea** da. Hala ere, ikasturtean zehar, beste ekintza berezi batzuk ere antolatzen dira.

Astean behin, zenbait proposamen eskaintzeko aukera dago: psikomotrizitatea, plastika, instalazio heuristikoak.... Ekintza horiek taldeko hezitzaileok antolatzen ditugu, normalean talde txikietan.

Familiei ere, aukera eskaintzen diegu eskolako bizitzan parte-hartzeko. Eguneroko harremana zaintzeaz gain, beste aukera batzuk ditugu familiek eskolako bizitzan murgiltzeko: eguna gurekin pasatzeko aukera, bere umearen urtebetetzean edo eskolako festetan har dezakete parte.

Eskolako beste ekintza orokor batzuk, familien presentziarik gabe izaten dira: inauteriak, danborrada...

Urtero komunitateko zenbait kultur eragileen parte-hartzea izaten dugu. Hauek dira: Gasteizko Lan eta Arte Eskola, Udal Musika Eskola, "Paraíso" Antzerki Taldea. Ekintza horiek urtean behin izaten dira eta eskola osoari zuzenduta daude.

NOIZ

Ikasturte bakoitzean egutegia erabakitzen da.

- + Olentzero festa: Abenduko funtzionamendu bereziko egunen aurreko ostiralean. Inauteriak: normalean, Inauteriak ospatzen diren asteburuaren aurreko ostiralean
- + Musika Eskola: Udal Folklore Eskolak jartzen du data. Normalean, maiatzaren asteazken batean (posiblea bada San Prudentzio egunetik gertu).
- + Paraiso Antzerkia:
 - ◆ Hezitzaileen tailerrak: hasieran hezitzaileekin saio batzuk egiten dituzte.
 - ◆ Familientzako tailerrak: ikasturtearen 1go hiruhilabetean, azaroan edo abenduan, hain zuzen ere.
 - ◆ Umeentzako ikuskizuna: ikasturte amaieran, normalean ekainean.
- + Arte eta Lanbide Eskola: normalean, apirilean edo maiatzean. Arte instalazioa 10 egun inguru geratzen da eskolan prestatuta.

Agurtzeko festa: Ekainaren bukaeran.

NON

Ekintza mota eta eguraldiaren arabera, espazio egokiena erabiltzen da.

HELBURUAK

- Umeen beharrak eta interesak errespetatuz, arte, estetika eta zentzumenekin jolas proposamen atsegina eta erakargarriak sortzea
- Umeak gure inguruko kultura (Euskal Kultura) eta tradiziozko ospakizunak ezagutu, hurbildu eta bizitzea.
- Familiak bere artean eta gurekin ere giro alai batean harremanak sendotzea.
- Familiak eskolako ekintzetan parte hartzera gonbidatuta sentitzea.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Umearen ongizate eta gozamina kontuan hartuta, ingurune sentsorial aberatsak antolatzea, estetika eta 0-3 urterako ekintzen egokitasuna zainduz.
- Gertutasunean, entzumen, enpatizatu eta behatzeko gaitasunetan datza.
- Ekintza aurretik egindako prestakuntza.
- Hezitzaileok bidelaguna eta erreferenteak izatea.
- Giro lasaia, alai eta atsegina sortu eta mantentzea.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Eskolako langile guztiok, ekintza ezberdinen jakinaren gainean egon behar dugu, gure parte-hartzea (antolaketa, garapenean, garbiketa...) ezinbestekoa baita. Behar den guztia prestatzen laguntzea.
- Bai umeekin, bai familiekin modu egokian aritzea, haien beharrei eta ezaugarriei egokitzuz.
- Giro atsegina sortzen lagundu eta errespetatzea.

PROZEDURAK

Ekintza bakoitzak bere prozedura dauka. Parte hartzen duten eragileen artean adostu, planifikatu, aurrera eraman eta baloratu egiten da.

Olentzero festa

- Ikasturtearen lehenengo bileran familiei komentatzen zaie. Jaia ospatu aurretik, familiei festari buruzko informazioa banatzen diegu. Familiei sarrerako pinuan jartzeko apaingarri bat ekartzeko eskatzen diegu.
- Egun horretan, ez dago jantoki, ezta siesta zerbitzurik ere.

- Olentzero patiotik agertzen da, gero haur taldez haur talde joaten da. Umeak badauka hurbiltzeko aukera edo ez.
- Familiekin otamena egiten dugu eta bakoitzak jaki edo edariren bat ekartzen du. Beraiek egindako produktuak ekartzea eskatzen zaie. Otamena antolatzeko euren laguntza eskatzen zaie
- Hezitzaileok, egoeraren arabera, erabakiko dugu aterako garen ala ez. Nahi duten umeekin eta talde txikietan ateratzen gara aretora edo jolastokira.

Inauteri festa

- Normalean, sarreretan inauterietako txokoa ipintzen da, mozorroak, koloretako oihalak, txanoak eta hainbat osagarriz osatuta. Haur taldeetan, mozorrotzeko hainbat material jartzen dugu. Umea mozorrotuta etor daiteke. Egun horretan, jantokia eta siesta zerbitzuak daude.

Paraiso Antzerkia Konpainia

- Paraiso antzerkia Konpainia honek hiru ekintza antolatzen ditu.
 - A) Hezitzaileontzako tailerrak
 - + Tailer-bilera horretan umeekin eta familiekin egingo ditugun saioak eta tailerrak azaltzen dizkigute.
 - B) Umeentzako Antzerki Saioa
 - + Goizean 2 saio egiten dira haur taldeak banatzeko aukera izateko. Aurreko egunetan, umearekin saioari buruz hitz egiten dugu. Antzespenak irauten duen bitartean, hezitzaileok haurrari eutsi egin behar diogu.
 - D) Familientzako tailerrak
 - + Arratsaldean egiten da eta saioetara umea familiar batekin etortzen da. Horrek aukera ematen die “familia moduan” gozatzeko, Hezitzaile-tutore batek laguntzen die eta argazkiak egiten ditu, gero erakusketa bat egiteko. Tailerrak haur taldeka egiten dira.

Arte eta Lanbide Eskola (instalazioa)

- + Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolak proposatutako proiektua da eta daukan helburua Arte mundua eskolara eta umei hurbiltzea da, “instalazio” deritzon ekintza baten bidez, artista garaikide baten lanetan oinarrituta.
- + Kurtso hasieran, proposamena aurkezten digute. Normalean, bi aste irauten du ekintzak, egun bakoitzean talde bat joaten da espazio horretara jolastera.

Musika Eskola

Udaletxeko Folklore Eskolak antolatutako ekintza da. Udaberriko goiz batean, gure eskolara etortzen dira musika jotzera.

BEHAKETA

- Umearen, zein familien erantzuna behatzen ditugu. Horrez gain, gure praktika, kanpoko eragileena eta ekintza bera ere behatzen dugu.

EBALUAZIOA

- Talde bileretan ekintza bakoitzaren balorazioa egiten dugu, baita iradokizunak ere. Behatutako datu guztiak aztertu, bikotearekin, hezitzaile taldearekin, aktibitatearen arduradunekin eta Hezkuntza Zerbitzuarekin komunean jarri, etorkizunerako erabakiak hartzeko.

OHARRAK

- Gero eta gehiagotan, zalantzak sortzen zaizkigu Olentzero eguna ospatu behar dugun ala ez, kontsumismoa eta erlijio kutxua oso presente daudelako.
- Umeen adinak kontuan hartuta:
 - + Sehaskan: Eguneroko biziaren garrantzitsuena da.
 - + 1–2 urteko haur taldeetan: proposamenen hurbiltasuna, lasaitasuna eta errespetua.
 - + 2–3 urteko haur taldeetan: parte-hartze aktiboagoa eta zuzenagoa.

8.-EBALUAZIOA

Ebaluazioa Hezkuntza prozesuaren oinarri estrukturala da. Ezinbestekoa da gure lana modu egoki batean aurrera eraman ahal izateko eta hobetzeko, gure alde ahulak eta sendoak aitortzeko, eta egindakoaz eta egiteke dugunaz jabetzeko.

Eraginkorra eta zentzuzkoa izateko, ebaluazioa sistematikoa, objektiboa eta etengabekoa izan behar da, egunez egunekoa. Ez da prozesuaren bukaeran bakarrik egin behar, aurretik, prozesuan zehar eta bukaeran baizik.

Hezkuntza etengabe aldatzen ari denez, gure zereginaren espiritu kritikoa eta gogotsua sustatu ohi dugu. Halaber, planteamendu berriak hausnartu eta txertatzera behartzen gaitu, errutinatik aldentuz.

Egoeraren diagnostikoa egiteak prozesuaren ebaluazioa errazten du. Denboran luzatzen den prozesua da, etengabekoa. Horrela, jarraipenerako eta hobekuntzarako tresna izango da.

Hainbat teknika eta tresna erabiltzen ditugu: zuzeneko behaketa sistematikoa, familiekin egindako elkarrizketak, txostenak, eguneroko erregistroak... Bertatik haurren bidelagunaren rola egiteko informazioa jaso ohi dugu.

Ebaluazioa globala, hezigarri eta familiekin partekatua da.

Taldeko umeak eta familiak ezagutzea funtsezkoa da, gure praktika beraien beharrei erantzun eta moldatu ahal izateko.

Beste aldetik, bikoteka eta talde baten barruan lan egiten dugunez, ezinbestekoa da banaka bildutako informazioa bikotearekin lehenengoz eta gero, hezitzaile talde osoarekin komunean jartzea.

Ebaluazioa ikaskuntzaren ekintza kritikoa da. Gure lana etengabe kuestionatzeko hausnarketa tresna, eta, era berean, errealitatearen konplexutasunaz jabetzen laguntzen digu.

“Este tipo de análisis sobrepasa la explicación de lo que ES con el fin de dar forma, a fuerza de golpes de pensamiento crítico, a lo que PODRÍA SER”: Bertolt Brecht.

NOIZ

Hezkuntza prozesuan parte hartzen duen ororen behaketa eta ebaluazioa etengabekoa da. Hau da ebaluazioa, jarraipenerako eta hobekuntzarako tresna izateko modu bakarra. Behaketa zuzena, sistematikoa eta egunerokoa izango da.

NON

Tresneei dagokienez, anitzak dira erabiltzen ditugunak: familiekin partekatzen den egunerokoa, txantiloak, "parrilak", hezitzaileon kuadernoa, argazkiak, grabaketak, audio-bisualak, egiten ditugun bileretako aktetan eta ikasturte bakoitzeko memorian.

HELBURUAK

- Haurraren garapen globala jarraitzea, programatutako helburu pedagogikoekiko koherentziari eutsiz.
- Umearen eta familiaren beharrak ezagutu eta erantzun egokia ematea.
- Gure eguneroko hezkuntza praktika egokitzea, aztertzea eta bere inguruaren etengabeko hobekuntza egitea.
- Jarritako helburuak lortzeko erabili diren metodoak eta tresnak baloratzea.
- Hezkuntza Proiektua eguneratzea gure praktika birplanteatzeko.
- Hezkuntza-prozesuan inguruak duen eragina (testuinguru fisiko eta soziala) kontutan hartuz, aztertu eta ebaluatzea.
- Hezitzaile bikotearekin ebaluazio partekatua egitea. Sistematikoki kurtsoaren hainbat unetan ebaluazioa aurrera eramatea gure praktika koherentziaz jorratzeko.
- Hezitzaile taldean, gure praktika hausnartzea, hezkuntza prozesua hobetzeko, egiteko era eta ezagutza ezberdinak partekatuz.

HEZITZAILEAREN ROLA

- Behaketa eta entzute aktiboa.
- Etengabe erne egotea, eskolan eskaintzen dena benetan umearentzat lagungarria ote den aztertzeko.
- Ume bakoitzaren ezagutza izatea, bidelagunaren rola ahalik eta egokiena izateko.
- Familiekin behar den konfiantza sortzea eta bi norantzako etengabeko informazioa mantentzea.
- Umearen aurrerapenak edo zailtasunak familiari adieraztea.
- Eskolan egiten diren ekintzei buruz hausnarketa egitea.
- Hezitzaile bikotearekin komuneko lana egitea.
- Eskolako beste hezitzaileekin esperientziak elkartrukatzeko.
- Zenbait teknikaren bitartez haurraren garapenaren jarraipena egitea eta gure praktikari eta inguruari buruz hausnarketa egin ondoren, behar diren hobekuntzak ezartzea.

KOMUNITATEAREN ROLA

- Familiak eta hezitzaileok umeari buruz erregistratutako datuak partekatzea eta familien interesak, zalantzak, kekek... kontuan hartzea.
- Eskolaren bizitza baldintzatzen duten gai zehatzetan, eskolako langile guztiok bileretan parte hartzea, denon ikuspuntua ezagutzeko eta talde erabakiak hartzeko.

PROZEDURA

Zer ebaluatu

A) Umearen inguruan

- + Umearen afektibitatearen inguruan, bere gaitasunak ondo garatu ahal izateko harreman egokiak izan behar dituztela esan beharra dago, bai haurren artean, baita helduekin ere.
- + Taldeko bizitzan, haurren indibidualtasuna kontuan hartu behar dugu. Hortik abiatuta, ebaluazioaren xedea, haurren ongizate fisikoa, psikologikoa, afektiboa eta soziala lortzea da, apurka-apurka autonomia pertsonala garatzeko aukera izan dezan.
- + Gurasoekin izandako elkarrizketan hartutako oinarritzko datuetatik hasita, ikasturtean zehar, zenbait parametroren bitartez, hainbat arlo ebaluatzen ditugu. Bai egunero bai denbora pasa ahala.

B) Hezitzailearen hezkuntza praktika

- + Haurrarekin egiten ari garen lanaz ohartzea, gure lanari eta egoera desberdinetan jokatzeko moduei erreparatuz. Hori dela eta, hurrengo parametroei erreparatu ohi diegu:
- + Hezitzaileoi dagokigunez: entzuteko jarreraren kalitatea, gorputz jarreraren egokitasuna, begirada eta keinuen esangura eta erabilera, komunikazio eta hizkuntzaren esanahi esanguratsua. Autoebaluaketa, gure praktika birplanteatu eta erabakiak hartzeko.
- + Hezitzaile eta haurren lotura nola sortu, garatu eta sendotzeko baliabideak: begiradaren norabidea, elkarrenganako hurbiltasuna, bere behar fisiko eta emozionalaren asetze mailaren egokitasuna...
- + Egindako proposamenak egokiak diren ala ez ikustea.
- + Haurren erritmoak errespetatzen diren behatzea.
- + Jasotako informazioa baliogarria den.

- + Nola sentitzen garen lanean.
- + Nolakoak diren gure koreografia, harremanak, jarrerak: hurrekin, bikote hezitzailearekin eta eskola komunitatearekin.

D) Ingurua eta eskolako ekintzak

- + Aztertu eta ebaluatzen duguna:
- + Espazioen eta materialen kokapena eta funtzionaltasuna.
- + Kanpoko jolas-tokien egokitasuna.
- + Jardueren tenporalizazioa.
- + Familiekiko harremana eta haien parte-hartzea.
- + Hezkuntza-elkarteko pertsonen arteko harremanak.
- + Umeari egiten zaizkion proposamenak, unea, iraupena eta heldutasunaren garapenari dagokionez egokiak diren.
- + Familiei egiten zaizkion proposamenak egokiak diren ordua eta iraupenari begira (Arte Eskolakoak eta Paraíso Antzerkikoak).
- + Lanaldiaren erritmoa haurren beharretara egokitzen den.
- + Lasaitasun eta entzute giroa sortzen den haur taldean eta umeen artean eta guraso bilerak.

NOIZ EBALUATU

A) Umearen inguruan

- + Harrera Garaian (hasierako elkarrizketa, eguneroko erregistroetan...) ume bakoitzaren beharrak ezagutzeko.
- + Sarrera eta irteeretan, familiarengandik jaso eta familiari emandako eguneroko informazioa elkartrukatzeko
- + Aurrerapausuak edo aldaketak ikusten ditugun bakoitzean, beharrak ezagutzeko eta erantzun egokia emateko.
- + Familia bakoitzarekin egiten diren elkarrizketetan eta bileretan.
- + Taldeetako familiekiko bileretan eta azken ebaluazioan.

B) Hezitzailearen hezkuntza praktika

- + Banakako hausnarketa egiten dugunean.
- + Bikote-hezitzaileok elkartzen garenean.
- + Eskolako bileretan.

D) Ingurua eta eskolako ekintzak

- + Astero eta hamabostero, hezitzaileak zuzendariarekin egiten ditugun bileretan.

EBALUAZIO TRESNAK

Gure etaparako (0-3urte) behaketa da ebaluatzeko funtsezko teknika. Gure garapen-prozesuaren ebaluazioa ahalik eta sakonena izatea komeni da. Horretaz gain, beste baliabide batzuk ere erabili ohi ditugu: elkarrizketak, koadernoak, ikus-entzunezkoak...

Behaketa:

Entzute aktiboak: Gai zehatz bat, une konkretu bat, haur baten zailtasun bat... entzute aktiboak enpatia asko eskatzen digu. Ebaluaziorako baliagarria zaigun kalitatezko informazioa eskuratzeko tresna ona da. Batzuetan, behaketa sistematikoan nabardurak eta zenbait egoera erregistratzeko ez gara gai. Entzute aktiboarekin zehatz-mehatz egoera konkretuetara jo dezakegu.

Behatzeko ohitura zertarako garatzea:

Haurren mundua ezagutzeko eta ulertzeko, eta, behar bezala, bidelagun izateko.

Banakako zainketen uneak eta hazkuntzaren egoera bakoitzerako aldeko jarrerak antolatzeko.

Jostailu, material eta altzari egokiak hautatu ahal izateko.

Haurrek beren jarduerak egiteko guneak antolatzeko.

Behatzeko urratsak:

- + Lasaitasunetik begiratu: toki honetan eta une honetan.
- + Modu objetiboan dena ikusi, deskribatu eta kontatzea: haurrak egiten duena, gure iritziak alde batera utziz eta geure emozioetatik urrunduz.

- + Behaketak bikotearekin edo beste hezitzaileekin partekatzea: behatutakoak aberastea ahalbidetzen du, errealitatetik hurbilago egoteko aukera emanez.
- + Behatutakoaren ondorioetara iristea. Ikusitakoaren arabera eta behaketa partekatutik abiatuta, hainbat galdera egin ditzakegu, esate baterako: zer esaten diguten haurraren eta helduaren jarrerak.
- + Behaketa berriak egitea eta estrategia berriak prestatzea haurraren garapenaren bidelaguna izateko, eguneroko errealitatera egokitzeke.

Beste tresna batzuk:

- + Harrera Garaian egunerokoa
- + Elkarrizketak
- + Galdetegiak
- +Ikus-entzunezko materiala
- +Ikasturtean zehar egindako egunerokoaren erregistroa
- +Informeak
- +Oharrak
- +Piklerren Garapen taulak
- + Koordinazioa
- +Hezitzaile talde bilerak eta memoria.

OHARRAK

Ebaluazioak helburu eraldatzailea izan behar du, pedagogía kontrahegemonikoak garatzea beharrezkoa da, izakia bere gaitasun guztiak benetan garatu ahal izateko.

“Sólo desarrollando una actitud permanentemente crítica pueden las personas superar una postura de acomodación.” P. Freire.

9.- HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUSPENA

Hezitzaile berriak eskolan hasterakoan, H.P. utziko diegu irakurtzeko.

Behar diren atalak edo puntu zehatzak berrikusteko bi irizpide nagusi ditugu:

- + Gure eguneroko lanean sakontzeko beharra sortzen denean edo gai bat lehentasun moduan aztertu nahi dugunean.
- + Gehienez lau urtean behin, ikasturte bukaeran edo hasieran.

10.-BIBLIOGRAFÍA

Abad, J. (2014) "Instalaciones de juego presimbólico y simbólico" artikulua. Revista Aula de infantil, 77, 24-25.

Abad, J; Ruiz de Velasco, A. (2014) "Contexto de simbolización y juego" artikulua. Revista Aula de infantil, 77, 11-15.

Abelleira, A. (2018) "Más allá de la observación profética" artikulua. Revista Aula de infantil, 94, 18-21.

Alos, M. y Andrés, M.N. (2014) "Observación para evaluar en la etapa de 0-6 años" artikulua. Revista Aula de Infantil, 76, 31-35.

Apple, M.W. (1996). El conocimiento oficial. La educación democrática en una era conservadora. Barcelona. Paidós.

Aucouturier, B. (2004). Los fantasmas de acción y práctica psicomotriz. Colección Biblioteca de Infantil 7. Editorial Graó.

Aucouturier, B. (2018) Actuar, jugar, pensar: puntos de apoyo para la práctica psicomotriz educativa y terapéutica.

Baraibar, J. M. (2008) "Evaluación de la propuesta pedagógica" artikulua. Revista Aula de infantil, 43, 9-12.

Bauman, Z. (2013). Sobre la educación en un mundo líquido. Barcelona. Paidós.

Beneito, N. El acompañamiento del desarrollo. Las ideas de Emmi Pikler. Segunda edición 2011. ISBN: en trámite.

Benians, J. (1996). Los años de oro. Editorial Rudolf Steiner.

Bowlby, J. (1979). Vínculos afectivos: formación, desarrollo y pérdida. Madrid. Morata.

Bueno i Torrens, D. (2016). Cerebroflexia. El arte de construir el cerebro. Barcelona: Plataforma Actual. Pág. 45-46.

Castro, C. y Panella, N. (2007). Un buen cambio en el cambio de pañales. Revista Infancia, 103, 8-9.

- Castro, C. (2010) Las comidas. Aula de infancia nº 53 pag. 56-57
- Cela, J. y Rafols, N. (2009) “ Disfrázate o Disfrázate como quieras”
artikulua. Revista Aula de infantil, 52, 42-44.
- Chokler, M. (2010) El concepto de autonomía en el desarrollo infantil temprano. Aula de infantil nº 53 pag.49-51
- Chokler, M. (2017). La aventura dialógica de la infancia. Colección Fundari. Ediciones Cinco.
- David, Myriam; Appell, Geneviève. (2010). Lóczy, una insólita atención personal. Colección Temas de infancia. Ediciones Ocatadro.
- D.Efland Arthur, (2004).Arte y cognición, la integración de las artes visuales en el currículum. Editorial EUB.
- De Truchis, Chantal (1996). El despertar al mundo de tu bebé. El niño como protagonista de su propio desarrollo. Ediciones Oniro.
- Escuela Infantil Hartzaro Pamplona. (2007). Documentar todo un proyecto de escuela. Las bandejas de experimentación. Revista Aula de Infantil, 39, 10-15.
- Fabrés, M. (2006) En el día a día nada es banal, nada es rutina. Infancia nº100 pag. 39-40.
- Fabrés, M. “Jatorduetako zaintza unean sakonduz” artikulua. HikHasialdizkariak 2010eko maiatzeanE.Pikler eta haurrenautonomiareninguruanegindakojardunaldietanoinarrituta, egindakoelkarrizketa.
- Falk, J. (2001) Desarrollo lento o diferente. Infancia nº70 pag. 17-20
- Falk, J. (2003) Consejos sobre la comida. Infancia nº 79 pag. 21-22
- Falk, J. (2003) La estabilidad para la continuidad y la calidad de las atenciones y relaciones. Infancia nº 80 pag. 23-26

Falk, J. (2009). Fundamentos de una verdadera autonomía. Revista Infancia, 116, pag. 22- 31.

Ferri, R. (2010). La importancia del cambio de pañales a bebés. Revista Aula de Infantil, 53, 20-22.

Fernández, I. (2014) “Experimentación y aprendizaje en familia” artikulua. Revista Aula de infantil, 77, 27.

Fomasi, I. y Travaglini, P.J. (2016). Cuidados corporales de acuerdo con los principios de Pikler. RELAdEI, Revista Latinoamericana de Educación Infantil. Monográfico Pikler-Lóczy. Pág. 66-77.

Freire, P. (1970). La pedagogía del oprimido. Madrid. Siglo XXI editores.

Freire, P. (1993). Pedagogía de la esperanza. Madrid. Siglo XXI editores.

García, M. (2018) “Observar para compartir” artikulua. Revista Aula de infantil, 94, pag. 22-23.

GasteizkoUdalarenHaur-Eskolak 2019-2020 ikasturterakoerabilera-
araudia.

Generalitat de Catalunya, Agència de Salut Pública de Catalunya. (2016) Recomendaciones para la alimentación en la primera infancia (de 0 a 3 años) PAAS.

Generalitat de Catalunya, Agència de Salut Pública de Catalunya. (2018) Pequeños cambios para comer mejor.

Generalitat de Catalunya, Agència de SalutPública de Catalunya. (2015) Acompañar las comidas de los niños. Consejos para comedores escolares y para las familias, PAAS.

Generalitat de Catalunya, Agència de Salut Pública de Catalunya. Preguntas más frecuentes: PMF Recomendaciones para la alimentación de la primera infancia (de 0 a 3 años), PAAS.

Giménez, L. y de la Morena, M. (2014) "Instalaciones: espacios de juego, espacios de vida" artikulua. Revista Aula de infantil, 77, 16-19.

Giroux, H. (1990). Los profesores como intelectuales. Hacia una pedagogía crítica del aprendizaje. Barcelona. Paidós.

Godall, T. (2010) Escalada de desarrollo motor según Pikler: la evolución de las posiciones estables y las posiciones intermedias. Aula de infantil nº 53 pag. 58-59

Godall, T. (2010) La competencia motriz del bebé es posible cuando cambia la mirada del adulto. Aula de infantil nº53 pag. 47-48.

Goldshmid, E. y Jackson, S. (2000). La educación infantil de 0 a 3 años. Madrid: ediciones Morata. Pág. 91-103 y pág. 119-130.

Guerrero, S. (2006) Control de esfínteres. Aula de infantil nº32 pag. 32-33

Gutman, L. "Esfínteres: control y autoritarismo" artikulua

Herrán, E. (editora). (2017). Claves de la educación Pikler-Lóczy. Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras. Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Herran, E. (2018). Claves de la educación pikler-Lóczy. Budapest: AsociacionPikler-loczy de Hungría. Pag 89-104

Hevesi, K. (1993) La participación del pequeño en la atención personal. Infancia nº 20 pag. 7-9

Hoyuelos, A. (2006). La estética en el pensamiento y obra pedagógica de Loris Malaguzzi. Barcelona. Octaedro.

Hoyuelos, A "La pedagogía del moco" artikulua. Revista Infancia, 18-19.

Huguet, T. (2018) “¿Recuerdo para qué observo?” artikulua. Revista Aula de infantil, 94, 23.

Kálló, E. (2016). Sobre la unicidad de cuidados y educación, una vez más. RELAdEI, Revista Latinoamericana de Educación Infantil. Monográfico Pikler-Lóczy. Pág. 15-20

Kelemen, J. (2015). El sueño y la confianza. XVI. HikHasiUdakoTopaketak.

König, K. (1995) Los tres primeros años del niño. Editorial Rudolf Steiner.

Korol, C. (2010). Pedagogía de la resistencia. Buenos Aires.

Krishnamurti, J. (2009). Sobre la educación. Barcelona. Kairós.

L´Ecuyer, C. (2012). Educar en el asombro. Barcelona: Plataforma Actual.

Mediavilla, A. (2018) “Quiero observar, pero me es imposible” artikulua. Revista Aula de infantil, 94, 24.

Menezo, S. y Méndez, M. (2018) “La observación: Veo, veo” artikulua. Revista Aula de infantil, 94, 14-17.

Mózes, E. (2016). La observación en la Pedagogía Pikler. RELAdEI, Revista Latinoamericana de Educación Infantil. Monográfico Pikler-Lóczy. Pág. 27-34

Mozés, E. y kelemen, J. (Noviembre 2016) Monográfico: Los cuidados en la Pedagogía Pikler. Asociación Pikler de Euskadi.

Naranjo, C. (2004). Cambiar la educación para cambiar el mundo. Editorial la llave.

Odena, P. (2003) EmmiPikler y la educación de los más pequeños. Infancia nº 81 pag. 27-29.

Otero, N. (2014) “Control de esfínteres: una cuestión madurativa” artikulua.

Otero, N. (2014) "Retirar el pañal o controlar esfínteres: el huevo o la gallina" artikulua.

Pikler, E. (1985). Moverse en libertad. Desarrollo de la motricidad global. Editorial Narcea.

Quintela, J. "En la mesa, como los adultos", Pikler-LoczyEuskalElkartea.

Ramírez Espejo, P. (2009). "Una maestra especial: Montessori" en Revist CSIF, Enero 2009- nº14

Recio, I. (2014) "Instalaciones" artikulua. Revista Aula de infantil, 77, 26.

Rodriguez, Bea. "Las funciones de la educadora respecto a la alimentación" artikulua Revista Infancia.

Rosselló, C. "La importancia de la naturaleza en la infancia" artikulua. Revista Crianza, septiembre 2016.

Ruiz, A. "Salgamos al patio" artikulua. Revista Infancia.

Ruiz de Velasco, A. y Abad, J. (2020) "Las instalaciones de juego: metáforas de la vida de relación" artikulua. Revista Aula de infantil, 103, 28-32.

SansomendiHaurEskola, (2012) "Sarrerak eta Irteerak" lehentasungisalandutakogaiarenondoriozsortutakodokumentua.

Sanz, S. (2013) "Las huellas de las instalaciones" artikulua. Revista Aula de infantil, 69, 30-33.

Silvestre, N. y Solé, M^a R. (1993). Psicología evolutiva. Infancia, preadolescencia. Barcelona: ediciones CEAC. Pag. 11-204

Singla, M (2010) Libertad de movimientos. Aula de infancia nº53 pag. 51-52.

Spitz, R. A. (1969). El primer año de vida del niño. México, D.F.: Fondo de cultura económica.

Stern, A. (2016). Del dibujo infantil a la semiología de la expresión. Iniciación a otra mirada sobre el trazo. Valencia. Editorial Samaruc.

SzantoFeder, Agnès. (2014) Una mirada adulta sobre el niño en acción. El sentido del movimiento en la protoinfancia. Colección Fundari. Ediciones Cinco.

Tardos, A. (1992). La mano de la educadora. Revista Infancia, 11, 14-18.

Tardos, A. (1992). Autonomía y/o dependencia. Revista Infancia, 15, 4-9.

Tardos, A. (1997) Marian Reismann: Relaciones. Infancia nº42 pag.10-12

Tardos, A. y Szanto-Feder, A. (2000). ¿Qué es la autonomía desde la primera edad? Revista Infancia, 62, 5-11.

Tébar, C. (2016). Montessori en casa. El cambio empieza en tu familia. Barcelona: Plataforma Editorial

Tomassi, T. (1978). Breviario del pensamiento educativo libertario. Madrid. Campo abierto ediciones.

Torralba, F. (2016). El silencio: un reto educativo. Boadilla del Monte (Madrid) PCC, Editorial y Distribuidora.

Valdecantos, R. (2002), El buen trato en la clase. Indicadores de calidad. Aula de Infantil, nº 9, Septiembre- Octubre 2002

Vallejo, A. (2018) "Mi mirada y la observación" artikulua. Revista Aula de infantil, 94, 9-13.

Velasco, R. (2010). "Método Montessori" en Temas para la Educación. Revista digital para profesionales de la enseñanza. Enero 2010, Nº6.

Vidiella, R. (2010) Hay bebés que se van solos a dormir. Aula de infantil nº 53, pag. 57-58.

Villarroel, P; Mucci, M. y García, P. (2014) “Instalaciones: puentes que conectan aquí y allá” artikulua. Revista Aula de infantil, 77, 20-23.

Wettich, H. (2005) Autonomía y cooperación en la vida. Infancia nº 89 pag. 34-35.

Winnicott, D.W. (1971). Realidad y juego. Ediciones Gedisa (2013).

BESTE BATZUK:

“Gure ebaluazio-paradigmaren abiapuntua” artikulua. Hik Hasi aldizkaria, 2016ko udazkena. 31tik 42. orrialdera.

“Garapen-testuinguruekologikoanoinarritutakoebaluazioa” artikulua. Hik Hasi aldizkaria, 2016ko udazkena. 43tik 49. orrialdera.

EmmiPickler (II) (2010-05-01), Jatorduetakozaintza, EnHikHasiAldizkaria.

Autonomiaheztendituguhaurrak? En Hazi hezi 2015eko negua

Mendekotasunabizizkonkistatzen da autonomia. En HaziHezi, 22. alea

Montse Fabres, elkarrizketa. En Hazi Hezi, 20 alea

Txikitikhandira, pardeletikmundura, HazeHezi, 24. alea

<http://kattuka.com/wp-content/uploads/2014/08/Esfinterren-kontrolerako-argibideak1.pdf>

Eztabaidagai: Umearen loa. Metodoak bai ala ez?, Hik hasi, 2012-05-07

Garapen-testuinguruekologikoanoinarritutakoebaluazioa, Azmarrinbloga, 2018/05/16.

Investigación-acción ejemplo práctico ES321, video de Hagogio Luna López

Monografikoaebaluazioaz, Hikhasi 2017/03/08.

Ebaluazioaren paradigma. Hik hasi, Udazkena 2016.

EbaluazioaHaurHezkuntza. Berrikuntzarakopausuak, (Hazitegi.Mu). 2015/05/28.

Haurraebaluetzetiktestuinguruaebaluetzera 2016-11-10, Hik Hasi

HEZIBERRI 2020 Plana. Ikasleen ebaluazioa.